

IRITZIA | 9

Eguraldi onaren
osasun arriskuez

GURE ELKARTEAK | 12-13

Emakumeen aurkako indarkeriari
aurre egiteko taldea

GERTUTIK | 18-19

Beñat Intxausti

EUSKARA OSAKIDETZAN | 20-21

Euskararen presentzia
Gurutzeta Ospitalean

MENDAROKO OSPITALEA

20 URTE DEBABARRENEKO
BIZTANLEEN OSASUNA ZAINTZEN | 5-8



MAGOAK ETA ARRAKASTA

Laster Osakidetzako Euskara Zerbitzuko lankide batek –formalki baino ez da langile, izatez magoa edo aztia baita– erretiroa hartuko duela eta, egoki da eta zuzen, oro har eguneroko bizitzako giza harremanetan, baina bereziki Osakidetzak bezero eta pazienteei ematen dien osasun arretan, tratuaren hurbiltasunak, pazientziak eta enpatia duten garrantziaz zenbait hitz esatea.

Izan ere, ukaezina da portaera horiek eguneroko bizitzan (harreman sozialetan, lan-harremanetan, harreman sentimentaletan) arrakasta izateko aukera gehiago eskaintzen digutela eta, Osakidetzari dagokionez, zerbitzu asistentzialen kalitatea hobetzen laguntzen dutela. Bide batez, harira dator gogoraraztea bezeroek eta pazienteei hautatzen duten preferentziazko hizkuntzan arreta egitea bat datorrela adierazpen horrekin.

Neurri handi batean, adimen emozionalak biltzen ditu goian aipatutako aldagai horiek eta, hain zuzen, horrexegatik jo du Osakidetzako Prestakuntza Zerbitzu korporatiboak jardura-lerro garrantzitsutzat azken urte hauetan psikologiaren arloko gai hori.

Adimen emozionalaren argitalpen nabarmenena, segurutik, Daniel Golemanen *Emotional Intelligence* da, eta bertako pasarte batean jasota dago arestian aipatutako mago kontzeptua: sentimendu onen olatu kutsagarria, lankide-bezeroen urduritasuna eta umore txarra uxatu eta bihotzak ireki eta bigunarazten dituen pertsona.

Geure Euskara Zerbitzuan, mago horrek Felix du izena, eta lankideok nahiz bezeroek aztikeria goxo horietaz disfrutatzeko aukera izan dugu hamar urtean. Bere eguneroko

portaera apalen bidez eman digun sakontasun handiko irakaspen hori izan dadila geure bide erakusle.

Osakidetzako Euskara Zerbitzuak besarkada sentitu batekin onena opatu nahi dio Felixi ekingo duen bizitzako garai itxaropentsu honetarako eta, inork gogoraraztea behar ez duen arren, pozik bizi!

URRIA

EUSKARA IKASTAROAK

Urriaren 29an, 2012-2013ko ikasturteko otsail eta ekain arteko euskara ikastaroetan izena emateko epea irekiko da.

1. Lan-orduetako ikastaroak: urriaren 29tik azaroaren 9ra (biak barne).
2. Lan-orduz kanpoko ikastaroak: urriaren 29tik abenduaren 14ra (biak barne).

Eskaerak Internetetik egin beharko dira.

Informazio gehiago, Osakidetzaren euskara webgunean.

AZAROA

KUDEAKETAREN

BERRIKUNTZARAKO OSAKIDETZA SARIEN IV. EDIZIOA

Sarien helburua da lan-taldeek eta unitate ezberdinek proposamenei buruzko praktikan eta kudeaketari buruzko esperientzia berritzaileetan izandako interes eta ahaleginak aitortzea.

Hautagaitzak aurkezteko epea 2012ko azaroaren 8an amaituko da, eguerdiko 12:00etan.

BERTSO SAIO KLINIKOA

2012ko azaroaren 30ean. Bizkaian bertso saio klinikoa egingo da. Bizkaiko OEEK eta Bizkaiko Medikuen Elkargoko Euskara Batzordeak Bilboko Zazpi Kaleetan egingo dute azaroko azken ostiralean. Burtsa eraikinean egingo da saioa eta ondoko jatetxe baten afaria.

EZKERRALDEA-ENKARTERRI ESKUALDEKO PRESTAKUNTZAKO III. JARDUNALDIA

Jardunaldian izena emateko epea zabalik dago. Jardunaldia azaroaren 16an egingo da Barakaldoko Clara Campoamor zentroan. Izena emateko epea 2012ko urriaren 21ean amaituko da.

Aurtengo gaia: 'Mendekotasunak: zer egin dezakegu? Errealitate hurbila'.

Informazio gehiago:

<http://www.ezkenk.org/jornada/>

Argitaratzailea:
Osakidetza
Araba kalea 45, 01006
Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 006 406
osatuberri@osakidetza.net

Erredakzio kontseilua:
Xabier Arauzo
Juan Elorriaga

Euskara zuzentzaileak:
Felix Razquin
EMUN lana euskalduntzeko
kooperatiba

Koordinatzailea:
Arteman Komunikazioa

Tirada:
7.000 ale

Lege gordailua:
ISSN 2254-450X

Diseinua eta maketazioa:
Arteman Komunikazioa

Azaleko argazkia:
Josetxo Arantzabal

Argazkiak:
Arteman/Josetxo Arantzabal

Inprimategia:
Gertu (Oñati)

**Osatuberrin parte
hartu nahi?**

Zeu ere protagonista izan zai-
tezke aldizkarian. Atal hauetan
parte hartzeko, idatzi
osatuberri@osakidetza.net
helbidera.



AURKIBIDEA

2	AGENDA
4	JAKINBERRI: Azken berriak motzean
5 8	SAKONEAN Mendaroko Ospitalea
9	IRITZIA Eguraldi onaren osasun arriskuez
10 11	OSASUN URRATSAK Ibilbide asistentziala
12 13	GURE ELKARTEAK Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko taldea
14 16	PLAZATIK Bilboko Arte Eder Museoa
17	ZORTZIKO TXIKIAN Nuria Rosell
18 19	GERTUTIK Beñat Intxausti
20 21	EUSKARA OSAKIDETZAN Euskararen presentzia Gurutzeta Ospitalean
22	OSASUN-ZENTROAN Hondarribia
23	KANPAINA Gripearen kontrako kanpaina
24 25	OSAKIDETZAN BIZITZA Iran
26	ATZERA BEGIRA Argitalpenak gurean
27	TXAPELA BURUAN Zuiako Koadrilla



ETXEKO OSPITALIZAZIO PEDIATRIKOA

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA

Bi erizainek (Carmen Suarez eta Loli Ruiz) eta pediatra batek (Jesus Sanchez) osatutako Etxeko Ospitalizazio Pediatrikoaren (EOP) programa martxan jarri dute honako helburuok lortzeko: gaixo dagoen umearen eta haren familiaren ongizatea bultzatzea, umea bere ingurunean bertan lehenbailehen sendatzea, ospitalizazio denbora murriztea, beharrezkoak ez diren ospitalizazioak saihestea, baliabide sanitarioen erabilpena hobetzea eta familiaren barruan heziketa sanitarioa eta banan-banakako zainketa sustatzea.

Izan ere, ebakuntza edo gaixotasun akueto edo kroniko bat izanda, hobera egin duten ume ospitaleratuentzat da EOP zerbitzua. Beraz, Solairuko Pediatra arduradunak eskatuta, umeek errekupeazioa edo tratamendua etxean amaitzen dute, ospitalean jasotako antzeko zainketak emateko bereziki prestatua dagoen medikuntza eta erizaintza pediatriako talde batek zainduta.

Halaber, Larrialdien bidez edo beren osasun zentroaren bidez ospitaleratu ohi diren paziente batzuek ere erabil dezakete, zenbait egunetan tratamendu espezifikoko egin behar badituzte.

Arretari dagokionez, 08:00etatik 15:00etara medikuntza eta erizaintzako taldearen etxeko bisitak eta telefono bidezko arreta eskainiko dira. Ordutegi horretatik kanpo telefono bidezko laguntza ere ematen da. Kontsulta telefonoz konpontzerik ez balego, familiak garraio sanitarioarekin harremanetan jartzea baino ez dauka Pediatriako Larrialdi Zerbitzura joateko.

DIABETESAREN GIDA ERIZAIN ETA HEZITZAILEENTZAT

BARRUALDEKO ESKUALDEA

Dokumentu honen helburua da ospitalean hartutako diabetikoei ematen zaien arreta hobetzea, baita beste arlo, anbulatorio edo lehen mailako atentzioko zentro batzuetakoa ere.

Bertako kideen eskariaren ondorio gisa sortu zen dokumentua; halatan, egoera batzuk nola kudeatu jakiteko edo insulina edo diabetesaren kontrako berriei buruzko zalantzak argitzeko informazioa eskatzea ohikoa zen.

Tratamendu berriak agertzeak eta Diabetesaren aldeko elkarteek, besteak beste, Diabetesaren Elkarre Amerikarrak, Espainiako Diabetes Federazioak eta Nazioarteko Diabetes Federazioak beren gidalerroak aldatzeak etengabeko berrikuntza eskatzen dute, eta hori ez da beti posible izaten.

Kontsulta azkarretarako tresna izatea du helburu, eta dokumentu irekia da: tratamenduei buruzko berrikuntzak jaso eta falta diren atalak osatzen saiatzea. Urtean behin dokumentua berrikusi eta beharrezko zuzenketak egitea da asmoa.

GAIXOEN ONGIZATEA ETA OSPITALEKO LANGILEEN EFIZIENTZIA DIRA OSPITALERATZE EREMUETAKO LEHENTASUNAK

ARRASATEKO OSPITALEA

Eremuak eta horien arteko joan-etorriak mugatzeko ate berriak jarri dituzte ospitaleratze unitateen eta itxaroteko leku eta pasabideen artean.

Debagoieneko Ospitaleak erabiltzaileei gogoratu nahi die bisitak mugatzeak duen garrantzia; izan ere, neurririk gabe egiten badira kalteak eragiten dizkiete gaixoei zein eurekin lanean dabilzan ospitaleko langileei.

Debagoieneko Ospitaleak atek jarri ditu ospitaleratze eremuak eta itxaroteko gelak banatzeko; hau da, azken horietan egoten den mugimenduak eta zaratak ospitaleratze unitateetako langileen jardunean eraginik izan ez dezaten.

SEGURTASUN KLINIKOA

OSAKIDETZA

Segurtasun klinikoa osasun sistemarekiko konfiantzaren eta kalitatearen oinarria da.

Irailaren amaieran egindako Osakidetza Pazientearen Segurtasunari buruzko jardunaldian, hainbat arlotako profesionalek hartu zuten parte, eta den-denak ados egon ziren, osasun akatsak saihesteko segurtasun klinikoa lehenetsi behar zela adieraztean.

Jardunaldiari amaiera emateko, Julian Perez Gil jaunak, Osakidetza zuzendari nagusiak, bi eredu alderatu zituen: segurtasun klinikoaren egungo ereduak -sistema lehenesten duena- eta aurreko segurtasun klinikoaren ereduak -gizabanakoa lehenesten zuena-. "Akats klinikoa gertaera-kateamendu baten ondorioz gertatzen da, eta horren arduraduna sistema osoa da eta ez gizabanakoa".

BERRI LABURRAK



MENDAROKO OSPITALEA

20 URTE DEBABARRENEKO BIZTANLEEN OSASUNA ZAITZEN

20 urte bete ditu aurten Mendaroko Ospitaleak. 1992an jarri zuten martxan eta inaugurazio ofiziala 1993ko martxoaren 18an egin zuten. Ordutik hainbat aldaketa izan ditu zerbitzuaren antolamenduak; baina, nabarmentena iaz gertatu zen: ospitalea Debabarreneko ESI izatera pasa zen. Hala, ospitalea eta eskualdeko osasun-zentroak bat izatera pasa dira.

Mendaroko Ospitaleak 20 urte bete ditu aurten. 20 urte Debabarreneko biztanleen osasuna zaintzen. Ospitalea 1992ko erdialdean martxan jarri zuten arren, inaugurazio ofiziala 1993ko martxoaren 18an egin zuten. Orduko lehendakari Jose Antonio Ardanza eta Osasun sailburu Iñaki Azkuna izan ziren inaugurazio ekitaldian.

Eduardo Gonzalez Lombide zuzendari gerenteak, Nerea Larrañaga Erizainen zuzendariak eta Aratxu Lozano Pertsonaleko zuzendariak azaldu digute 20 urte hauetako ibilbidea. “1990eko abenduan laborategia ekarri zuten Mendarora Eibarko anbulatoriotik. Haiek izan ziren lanean hasi ziren lehenen-

goak. 1990eko urtarrilean zuzendaritza etorri zen, baina oraindik hau obretan zegoen. Elgoibarren jarri zuten bulego batetik eskatzen zituzten baimenak eta erosten zuten materiala”, gogoratzen du Larrañagak. 1991n, zuzendaritzaz gain, hiru erizain eta erizain laguntzaile bat ere Mendaroko Ospitalea izango zen eraikinerara joan ziren, eta euren ardura izan zen ospitalea osatzea: biltegiak osatu, kontsultak, esterilizazioa martxan jarri... egin behar izan zuten, besteak beste. 1991ren bukaeran lehenengo kontsultak egiten hasi ziren: kirurgia, urologia...; hala ere, urte haietan ebakuntzak beste ospitale batzuetan egiten zituzten. 1992ko martxoan barne medikuntzako planta zabaldu zuten Mendaron. Ospita-



lean egin zuten lehenengo ebakuntza ekainaren 16an izan zen, hernia bat; lehenengo erditzea, berriz, irailaren 9an izan zuten. “Egun horretan hiru erditze egon ziren ospitalean”, dio Larrañagak. Urgentzien zerbitzua martxoan zabaldu zuten, eta errehabilitazioa otsailean. Hala, 1992ren amaieran dena martxan zuten Mendaron.

Ordura arte ez zegoen ospitalerik Debabarrenean. Eibarren anbulatorioa zegoen eta han egiten zituzten kanpo kontsultak. Gainera, anbulatorioa eta erradiologia zeuden Eibarren. Baina, esan bezala, 1990ean Mendarora ekarri zuten laborategia eta baita erradiologia unitatearen zati bat ere. Bestalde, amaetxea zegoen Eibarren, baina 1992an itxi egin zuten eta han lan egiten zuten profesional asko Mendarora joan ziren. Kirurgia, urologia, traumatologia, otorrinolaringologia, neurologia, eta endokrinologia espezialitateak, besteak beste, izan dituzte Mendaron hasiera-hasieratik. “Gertatzen dena da 20 urte hauetan, adibidez, endokrino bakarra izan duela ospita-

MENDARO
1993ko martxoaren 18an inauguratu zuten ospitalea orduko Ardanza lehen-dakariak eta Azkuna Osasun sailburuak.

leak. Orain bi ditugu, neurologoak ere orain bi ditugu”, azaldu du Gonzalez zuzendari gerenteak. Horrek esan nahi du profesional kopurua asko handitu dela 20 urtetan. Adibidez, lehen traumatologia kontsulta bakarra zeukaten eta orain hiru kontsulta dituzte: Mendaron bi eta bestea Eibarren. Orain ere tamaina arazoak dituztela gaineratu dute hirurek.

“1991 bukaeran lehenengo kontsultak egiten hasi ziren: kirurgia, urologia...; hala ere, urte haietan ebakuntzak beste ospitale batzuetan egiten zituzten”.

Mendaroko Ospitaleak 119 ohe ditu eta 75.993 biztanleei ematen die zerbitzua. Mallabia eta Ermua Bizkaia diren arren, Debabarrenako Erakunde Sanitario Integratuan (ESI) daude. Gainera, eskualdekoak ez diren hainbat herrirekin dute tratua: Ondarroa, Azpeitia, Azkoitia... “Ondarroatik, adibidez, erditzera hona etortzen dira, eta baita urgentzietara ere”, dio Larrañagak.

Gaur egun eskualde mailako ospitale batean egon daitezkeen espezializazio denak eskaintzen ditu Mendaroko Ospitaleak. “Lau ebakuntza gela ditugu eta laster bosgarrena jarriko dugu”, dio Gonzalezek. Era guztietako ebakuntzak egiten dituzte Mendaron, batez ere, zaintza intentsiboak behar ez dituzten pazienteak operatzen dituzte. Orain bertan ebakuntza gela guztiak birmoldatzen ari dira. “Kontuan hartu 20 urte dituztela. Orain arte ebakuntza gelak modernizatzen gutxi inbertitu izan da; lan gehiago egin da ebakuntza gelen baldintza onak mantentzen. Orain, ebakuntza gelak birmoldatzen hasi gara”, dio zuzendari gerenteak. Irailaren hasierako 1, 2 eta 3 gelak guztiz birmoldatuta utzi zituzten eta abenduan eta urtarrean laugarrena eta bosgarrena amaitzeko asmoa dute. Hori da azpiegituren inguruan egin duten azken lana.

DEBABARRENEKO ESI

Osakidetza egin duen azken antolaketa araberak Mendaroko Ospitalea Debabarreneko ESI izatera pasada. Mendarokoa eskualdeko Ospitalea da eta bere barruan hartzen ditu eskualdeko osasun-zentroak. Herrietako osasun-zentroetan lehen mailako arreta-zerbitzua ematen

da, eta Donostiako Ospitaleari hiruugarren mailakoa deitzen zaio.

Urte hauetan ospitaleak izan dituen mugarrak zeintzuk izan diren azaltzeko eskatu diegu. Larrañagak, Erizainen zuzendariak, dio "aldaketa nabarmenena" kirurgia ospitalizazioarekin egitetik ospitalizazio gabe egitera pasa zenean gertatu zela. "Orain normala ikusten dugu, baina hori 1993an hasi zen. Ebakuntza egin eta etxera joaten hasi ziren pazienteak, baina ordura arte gaua ospitalean pasatzen zuten", diote. Beste mugarri garrantzitsu bat etxerako ospitalizazioa izan da. Magdalena Fernandez da zerbitzuko burua. Lau mediku, bost erizain eta idazkari bat daude zerbitzuan lanean. Iazko datuak begiratu 46 pazientek izan zuten bataz beste eguneko, eta momenturen batean baita 60 ere. "Gaixo horiek behar duten zaintza lehenengo mailako osasun-zentroetan ematen dena baino handiagoa da", diote. Hala ere,

“Mendaroko Ospitaleak 119 ohe ditu eta 75.993 biztanleri ematen dio zerbitzua. Mallabia eta Ermua Bizkaia diren arren Debarrenako ESIIn daude”.

ospitalizazio zerbitzuko langileek lehenengo arreta-zerbitzuko mediku eta erizainarekin harreman estua dute. 2011. urtean sortu zuten urgentzia berriak ere mugarri garrantzitsua izan dira Mendaron. Azpiegitura eta instalazio modernoekin egokitutako urgentziak dira. Beste mugarri garrantzitsua iaz sortu ziren ESI erakundeak dira. Integrazio horrek aldaketa nabarmena ekarri du eskualdeko ospitaleetan eta, nola ez, baita Mendaroko Ospitalean ere. Ospitalean 476 langile daude lanean, eta horiei gehitu behar zaie lehenengo mailako arreta-zerbitzutik etorri diren 198 langileak.

Mendaroko Ospitaleko datuekin jarraituz, urtean 600 bat erditze izaten dituzte. Debarreneko herrietako umeak eta Ondarroakoak jaiotzen dira Mendaron. Ospitalean 118 mediku, 9 emagin, 136 erizain, 91 erizain laguntzaile, 28 zeladore, bost fisioterapeuta, 25 osasun tekniko, 43 administrari, 5 zuzendari eta bestelako 11 langile egiten dute lan. Urtean, familia medikuan 319.045 bisita izaten dituzte Debarreneko ESIIn; pediatria bisitak, ostera, 51.778; erizainek 104.243 bisita izaten dituzte; eta, emaginek 16.193 bisita. Etxerako ospitalizazioari dagokionez, urtean 938 paziente izaten dituzte. Kontuan hartu behar da pertsona batek egun bat baino gehiagoan jaso dezakeela zerbitzua etxean.

Mendaroko Ospitaleko lehenengo gerentea Imanol Apalategi izan zen. Haren ondoren Eduardo Garate etorri zen (1992), eta ondorengoak hauexek izan ziren: Iñaki Unzaga, Karlos Sola eta Gorka Sarasola. Sarasola iaz erretiratu zen eta bere ordez Luisa Diez izan zen behin-behineko gerentea. Gaur egun Eduardo Gonzalez Lombide da gerentea.

ETORKIZUNENKAK

Debarreneko ESIk duen erronka nagusia 2011ko abenduaren 16tik datorrena da; orduetik, Mendaroko Ospitalea eta eskualdeko osasun-zentroak bat dira. Hala, aldaketa horrek lan egiteko moduan ere aldaketak ekarri ditu. "Bakoi-tza bere aldetik ibiltzeari utzi eta aurrerantzean bat izango gara", diote. Ospitalea eta osasun etxeen arteko konexioa hobetu dute, baita medikuak izendatzerakoan ere. "Lehen medikuak eta espezialistak deitzen zitzairen, baina denak ziren espezialistak. Orain, ospitaleko medikua eta lehen mailako arreta-zerbitzuko medikua esaten zaie".

Eduardo Gonzalez gerenteak azaldu du ospitalea eta lehenengo arreta-zerbitzuaren artean kultura bera izatea dela erronka, "denek ildo berean" lan egin dezaten. "Zubiak eraiki behar ditugu eta badirudi bide onean goazela; izan ere, jendeak susmo ona hartu du",



OSPAKIZUNAK

Urriaren 5ean 20. urteurreneko ospakizun ekitaldia egin zuten Mendaron.



azaldu du. Bestalde, ospitaleko azpiegiturak hobetu nahi dituzte. "20 urte ditu eta badirudi ospitale berria dela, baina ez da horrela. Askok hondatzen da eta diru asko inbertitu beharra dago. Izan ere, ospitaleak egunero ematen du zerbitzua 24 orduz", gogoratu du gerenteak.

Aurrera begira, Mendaroko ESIk 2011. urtean martxan jarri zuen eta orain zabaldu gura duten programen artean paziente pluripatologikoaren programa dago (PAI). "Zirkuitu berri bat sortu dugu oso gaixok dauden pazienteekin, sarritan ospitalaritzen direnekin", diote. Paziente aktiboaren programarekin ere lanean dihardute. "Aukeratzen dugu paziente bat patologia jakin batean aditua dena. Medikuen laguntzarekin eta ezagutza batzuk hartu ondoren, patologia bera duten hainbat pazienteekin taldea sortuko du aipatutako paziente horrek. Konfiantza gehiago ematen du gaixotasun bera duten norbaiten ahotik jasotzea aholkuak", dio Gonzalezek. Gainera, Debabarreneko nagusiekin harremanetan daude paseo osasuntsuak izeneko programa garatzeko. Eskualdean, patologiarekin araberako egokitutako paseoa egin nahi dituzte. Soziosanitario arloan, ospitalearen, Udaleko Ongizate Sailen artean eta bailarako egoitzetako arduradunen artean elkarlana bultzatu nahi dute. "Eskualde nagusia dela kontuan hartuta oso ga-

rrantzitsua da hori. Ongizatean lan egiten dutenentzat erreferentzia osasun langileak direnak ditugu ospitalean eta osasun-zentro bakoitzean", diote. Euskarari dagokionez, Bikain ziurtagirako lanean dabil-tza. Zilarrezko Bikain agiria dute ospitalean, eta orain Zilarrezko Bikain hori osasun etxeetara zabaltzea lortu nahi dute.

“Ospitalea eta lehenengo arreta-zerbitzuaren artean kultura bera izatea da erronka, denek ildo berean lan egin dezaten”.

EPE LUZERAKO PAZIENTEAK

Aurrez esan duten moduan, ospitalea txiki geratu da. Gaur egun ospitaleak duen behar handiena epe luzerako pazienteendako oheak dira. "Badirudi orain eman duten irtenbidea Eibarren ospitalea egitea dela; bestela, hemen bertan oheak jarri beharko dituzte", dio gerenteak. Beharren arabera egokitzen dute espazioa. Azkenaldian administrazioari lekua lekua kentzen ari zaio asistentziari emateko. Baina administrazioa ere leku faltarekin dabil izan ere antolamendu aldaketa dela-eta, 200 lagun gehiagoren paperak dituzte gordetzeko.

ZAPIA

Urteurreneko ospakizun ekitaldian sail bakoitzeko langile "zaharrenari" bordatutako zapi jarri zioten. Ekitaldian 350 bat lagun elkartu ziren.



20 AÑOS CUIDANDO LA SALUD EN DEBABARRENA

El hospital de Mendaro acaba de celebrar el XX. aniversario. 20 años trabajando por y para la salud de los habitantes de Debabarrena. El hospital lo inauguraron el 18 de marzo de 1993, con el entonces, Lehendakari Jose Antoni Ardanza y el consejero de sanidad Iñaki Azkuna al frente. Pero en realidad, el hospital estaba en funcionamiento desde mediados de 1992. El Director-Gerente Eduardo Gonzalez Lombide, la directora de enfermería Nerea Larrañaga y la directora de personal Aratxu Lozano nos han contado el recorrido de estos 20 años. Los hitos más importantes de estos años han sido: pasar de la cirugía con hospitalización a una cirugía sin hospitalización; otro hito importante ha sido la hospitalización en casa. Además este servicio tiene muy buena aceptación en Debabarrena; el año pasado tuvieron una media de 46 pacientes por día; por último, ha sido un gran cambio la formación de OSI Debabarrena. El hospital de Mendaro da servicio a 75.993 personas y hoy en día tiene 119 camas. Con vistas al futuro, una de los retos del hospital es tener camas para enfermos de larga duración.



Iñaki Peña Bandres
Gurutzetako medikua.

“EGURALDI ONAREN OSASUN ARRISKUEZ”

Urtaroak eta gaixotasunak. Neguan hotzeriak eta pneumoniak udaberrian bereziki, baina udazkenean ere asma eta beste-lako alergia prozesuak, eta udan, hemen aipatuko ditugun gaixotasunak. Ez dago eguraldi onik edo txarrik, hala eguzkia nola euria beharrezkoak dira, elurra ere onuragarria da. Eskolatik ikasten ditugun kontu jakinak dira, baina klima fenomeno guztiek euren ajeak badituzte.

Ez dago eguraldi onik edo txarrik, hala eguzkia nola euria beharrezkoak dira, elurra ere onuragarria da. Eskolatik ikasten ditugun kontu jakinak dira, baina klima fenomeno guztiek euren ajeak badituzte.

Esate baterako, bero-kolpea inguruneke tenperatu altuek eragindako osasun egoera arrisku-tsua da, eta umeengan, adineko jendearengan, bihotz eta biriketako gaixoengan, gizenengan eta jarduera fisiko handia egiten duten pertsonengan azaldu daiteke. Bero-kolpe hauek berez eritasuntzat har ditzakegu, baina demaseko beroak eri kronikoen agerraldi akutuak ere sor ditzake, bide horretatik hilkortasuna handituz, Bihotz Gutxiegitasuna eta Biriketako Gaixotasun Butxatzaile Kronikoa adibiderik ezagunenak izanda.

Bestela, bero-bolada edo udaminak gertakari meteorologikorik hilgarrienak dira. Ameriketako Estatu Batuetan 1992 eta 2001 artean, adibidez, bero handiegia 2.000 heriotza baino gehiago ekarri zituen (horietako asko gizentasunarekin oso lotuta), eta uholdeek eta urakanek, berriz, 880 eta 150 herio eragin zituzten, hurrenez hurren.

Geurean, 2003ko bero-boladak Europa gogor astindu zuen. Iturri ez ofizialek egin dituzten estimazioen arabera, Frantzian 10.000 lagun hil ziren, Alemanian 7.000 eta Espainian 4.000 inguru. Aitzitik, iturri ofizialek kopuru erabat bestelakoak eman zituzten Frantziar eta Espainiar estatuetan batez ere –iturri ofizialen arabera Espainian 141 hildako baino ez–. Sarri gertatu ohi den legez, informazio iturrien arabera alde ikaragarriari ez zaio azalpen ofizialik eman nahi izan.

Lehen aipatutakoak beroaren muturreko ondorioak dira, baina tamalez, munduan tumorarik zabalduenak ere eguzkiak eragindakoak dira, melanomak eta azaleko bestelako minbiziak, alegia. Eguraldia on eta txartzat hartzean jokoan subjektibotasun handia dagoela bistan da, baina uste dut osasungintzan gabiltzanok ardura berezia daukagula halako kontuetan objetibotasun batzuk jakinarazteko.

Munduan tumorarik zabalduenak ere eguzkiak eragindakoak dira, melanomak eta azaleko bestelako minbiziak, alegia.

IBILBIDE ASISTENTZIALA, PAZIENTEA ARTATZEKO EZINBESTEKO INFORMAZIO ETA KOORDINAZIORAKO GAILUA

GOIERRI-UROLA GARAICO OSASUN-ZENTROETAN HAINBAT **IBILBIDE ASISTENTZIAL** MARTXAN JARRI DIRA AURTEN. IBILBIDEAK LEHEN MAILAKO ARRETAKO ETA OSPITALEETAKO MEDIKU ESPEZIALISTEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA ETA KOORDINAZIOA HOBETZEA AHALBIDERATZEN DUTE, PAZIENTEEI JARRAIPEN HOBEA EGITEKO. ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATU HAU AITZINDARIA IZAN DA HALAKO IBILBIDEAK EZARTZEN ETA BAITA EUSKARRI INFORMATIKOA EGITEN ERE.



Bi gaixotasun kroniko-ekin lotutako ibilbide asistentzialak martxan daude: Biriketako gaixotasun butxatzaile kronikoa eta Bihotz gutxiegitasuna.

Ibilbide asistentzialak gida batzuk dira, lehen mailako arreta egiten duten eta ospitaleetako mediku espezializatuen arteko lanak integratzea helburua dutenak. Horri esker, lehen mailako arretan pazienteari egiten zaizkion azterketa fisiko eta proba guztien emaitzak kontsulta arteko txostenean sartu behar dira espezialistak ikus ditzan. Eta, alderantziz, espezialistak egindako proben emaitzak, diagnostikoa eta tratamendua **lehen arretako medikuari** bidali behar zaizkio.

INFORMAZIO GEHIAGO
elkartrukatu dezakete orain lehen mailako arreta mediku eta espezialistek. Ezkerretik esku-mara Ricardo San Vicente eta Igor Iturbe.

ZERBITZUEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA ERRAZTU

Goierri-Urola Garaiko erakunde sanitario integratuaren barruan Ordizia, Lazkao, Beasain, Zumarraga, Legazpia, Azkoitia eta Azpeitia daude. ESI horren baitan profesionalen arteko komunikazio eta koordinazioan hutsuneak ikusten zituzten. "Bi eremu erabat desberdinetan lan egiten genuen eta informazio trukaketa txikia genuen", azaldu digu lehen mailako arretako medikua den Ricardo San Vicentek.

Bertako profesionalen aspaldiko errebindikazioa zen hori; eta, orain, Goierri-Urola Garaiko ESIko asistentzia integratuaren egitasmoaren barruan eta zuzendaritzak bultzatuta, posible izan da martxan jartzea. Ibilbide asistentzialak kronikoaren estrategiaren baitan kokatzen dira. Bi gaixotasun kronikorekin lotutako ibilbide asistentzialak idatzi dituzte: Biriketako gaixotasun butxatzaile kronikoa eta **Bihotz gutxiegitasuna**. Gida idatzi bezain laster profesional guztiak informa-

tu zituzten. Gerora, ibilbide asistentzialak nola garatu jakiteko tailerrak egin zituzten. **Biriketako gaixotasun butxatzaile kronikoarena** maiatzean jarri zuten martxan, eta Bihotz gutxiegitasunarena, berriz, ekainean.

“Askotan pazienteak espezialistarengana bidaltzen da lehen mailako arretan diagnostiko osoa egiteko baliabideak ez dituztelako, baina orain hori ere erraztu da”, azpimarratu du Igor Iturbe mediku pneumologoak.

SARRI EMATEN DIREN GAIXOTASUN KRONIKOAK

Ibilbideekin hasteko gaixotasun kroniko horiek aukeratzeko arrazoiak eman dizkigu Iturbek: “Biak biztanleen artean maiz azaltzen dira, baina gutxi diagnostikatzen dira; gainera, **hilkortasun handia** dute eta sarritan ospitalizazioa eskatzen dute”.

San Vicentek azaldu duenez, gida hauek ezarrita lehen mailako arretako medikuek formazio lan handiagoa egin behar dute, baina ahaleginak merezi izan du eta profesionalek oso harrera ona egin diote apustuari: “Protokoloa jarraitzeak berau hobeto ezagutzea suposatzen du, baina guztiok argi daukagu pazientearen kontrolari begira hobeto arituko garela”. Sistema berriaren onurak asko dira, eta San Vicentek horietako batzuk azaldu ditu: “Orain arte ez genuen hainbat proba eskatzeko aukerarik; eta orain, berriz, bai. Adibidez, Bihotz gutxiegitasun kasuetan diagnostikorako oso garrantzitsua den ekokardiograma kontsultatik eska dezakegu orain”.

Gida honi esker, orain lehen mailako arreta zerbitzuan hobeto diagnostikatu daitezke zenbait gaixotasun,

“Orain arte ez genuen hainbat proba eskatzeko aukerarik; eta orain, berriz, bai. Adibidez, Bihotz gutxiegitasun kasuetan diagnostikorako oso garrantzitsua den ekokardiograma kontsultatik eska dezakegu”.



HILKORTASUN HANDIA

duten bihotz gutxiegitasuna eta biriketako gaixotasun butxatzailearekin hasi dituzte ibilbide asistentzialak.

pazienteak hobeto aztertzeko baliabide gehiago eskura dituztelako.

DIABETESA ETA GERRIKO MINA

Urrian egingo dute ibilbide asistentzialen balorazioa, baina dagoeneko idatzita dituzte beste bi gaixotasunen gidak: Diabetesa eta Gerriko mina. “Diabetesa maiz azaltzen da eta, zaintzen ez bada, ondorio oso latzak izan ditzake. Gerriko mina ere oso ohikoa da, eta arazo kroniko bihurtzeko arriskua du”, diosku lehen mailako arreta medikua den San Vicentek.

Ibilbide asistentzialak oso argi azaltzen du zer azterketa fisiko eta proba egin behar den lehen mailako arretan inora bidali aurretik. Horri esker, orain lehen mailako arretako medikuek erresonantzia magnetikoa eskatzeko aukera ere badute. Eta, gerora, beste ibilbide asistentzialetan bezala, espezialistak hartutako erabakiaren gaine-

ko informazioa bidaliko dio lehen mailako arretako medikuari.

BERTAN DISEINATUTAKO EUSKARRI INFORMATIKOA

Goierrri-Urola Garaiko profesionalak lehenetarikoa izan dira ibilbide asistentzial hauek ezartzen, nahiz eta Osakidetza beste hainbat zentrotan ere hasi diren. Horrez gain, Goierri-Urolakoa ere aitzindaria da gida horien euskarri informatikoak diseinatu dituztelako, profesionalek kontsulta ditzake-tenak.

“Osabideren baliabide informatiko bat erabilita gure protokolo informatikoa diseinatu dugu. Bertan pazientearen gaineko informazio zabala eskuragarri egoteaz gain, gaixotasun zehatz bat **artatzean** jaso beharreko sintomak, eskatu beharreko probak, eta baita pazienteak zein unetan bidali behar den espezialistarenera ere zehazten du”.

Artatu: *Atender, cuidar.*

Biriketako gaixotasun butxatzaile kronikoa: *Enfermedad pulmonar obstructiva crónica.*

Bihotz gutxiegitasuna: *Insuficiencia cardíaca.*

Hilkortasuna: *Mortalidad.*

Ibilbide asistentziala: *Circuito asistencial*

Lehen arretako medikua: *Médico de atención primaria.*

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRA LANEAN



ARABA ESKUALDEKO OSASUN-ZENTROETAN EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIARI KONTRA EGITEKO TALDEA OSATU DUTE HAINBAT PROFESIONALEK. 2010. URTEAN MAXI GUTIERREZ MEDIKUAK 'GENERO BIOLENTZIAREN ARAZOA LEHEN MAILAKO OSASUN ARRETA-ZERBITZUAN' IKASTAROA ESKAINI ZUEN ETA, HAIN ZUZEN, HORTIK ABIATUTA SORTU ZUTEN TALDEA. GAIAREKIN SENTSIBILIZATUTA DAUDEN PROFESIONALAK DIRA TALDEKO KIDEAK

Osasun-zentroetatik arazo honen aurrean zerbait gehiago egin zitekeela pentsatuta erabaki zuten taldea sortzea. Helburu nagusia tratu txarrak jasotzen dituzten emakumei informazioa eman eta jaso dezaketen laguntzaren berri ematea da. Bestalde, gainerako profesionalak sentsibilizatzen ahalegintzen dira sentsibilizazio saioen bitartez; horrez gain, saio klinikoak egiten dituzte ezagutzen dituzten kasuak mahai gainean jarri eta nola tratatu behar diren azaltzeko. “Nahi duguna da osasun arloan lan egiten duten profesionalak indarkeriaren arazoari osasun arlotik ere aurre egin behar zaiola azaltzea. Izan ere, indarkeria osasun arazo bat da, osasun arazo publiko bat”, diote.

Taldea gida bat prestatzen dabil osasun arloko profesionalak zuzendua. “Kasu praktikoak azalduko ditugu, indarkeria kasuak nola tratatu azalduz”, adierazi du Ana Margarita Achurra taldekideak.

OSASUN ARAZO PUBLIKOA

Profesionalak argi dute indarkeriaren arazoa osasun arazo dela. “Alde batetik osasun arazo publiko bat da, gertatzen diren kasu larrirenetan hilketak egoten direlako; baina, horrez gain, tratu txarrak jaso dituzten emakumeek osasun arazo asko izaten dituzte”, diote. Triste daudelako, depresioa dutelako, minen bat dutelako... joaten dira kontsultara emakume horiek. Medikuei kontsultetara asko joaten diren emakumeak dira. “Kasu horietan, gehiago galdetuz gero konturatzen gara oinarrian dagoen arazoa indarkeria arazo dela. Indarkeria fisikoa edo psikologikoa izan daiteke”, diote. Batzuetan indarkeria ez da bakarrik fisikoa izaten. Hitz egiteko arazoa izaten da, hitzezko eraso, errespetu falta... horrek guztiak familiarengan eta umeengan ere eragina izaten du.

Indarkeria kasuak ez dira ulertzen indarkeriak nola funtziona-

GIZARTEKO ARAZOA

Egiteko asko dagoela gaineratu dute, baina ez osasun arloan, gizartean baizik.

tzen duen jakin arte. “Prozesu luzea da: emakumeak 7-10 urte behar izaten ditu indarkeria jasaten ari dela oharrazteko. “Maiteminduta dago eta ez da konturatzen non dagoen sartuta. Kanpotik ikusita, eta indarkeriaren prozesua jakin barik, ezin da egoera hori ulertu”, gaineratu dute. “Kanpotik ezin dugu ulertu gizon batek maite duen emakumea jotzea edo iraintzea. Ezin dugu ulertu hori jasaten duen emaku-

“Alde batetik osasun arazo publiko bat da, gertatzen diren kasu larrirenetan hilketak egoten direlako; baina, horrez gain, tratu txarrak jaso dituzten emakumeek osasun arazo asko izaten dituzte”.

meak nola jarraitzen duen hor. Emakume horiek existitzen direla konturatzeko gizarreak izan duen oztopo handiena hori izan da”, diote. Arazo garrantzitsua dela diote, baina hilketak egon arte gizarrea ez dela arazoaz konturatu.

Gaur egun, ordea, gauzak aldatu diren arren eta indarkeriaren prozesua ezagutzen den arren gizarreak matxista izaten jarraitzen duela diote. Gainera, etxe barruko arazo moduan tratatzen da, familia arazo moduan. Eta hori ez dela horrela diote: osasun arazo publikoa da, eta, gainera, beste hainbat osasun arazo ekar lezake. “Larriena ez da belarrondoko bat, larriena da gertatu diren errespetu falta guztiak. Horrekin egunero bizitzea osasun arazo publikoa da, guztioi eragiten diguna”.

“Taldeak duen beste helburuetako bat Osakidetzako historian tratu txarrak jasan dituen emakumearen diagnostikoa ipintzea da”.

TALDE IREKIA DA

Indarkeriaren kontrako taldea talde irekia da. Taldean daudenei osasun arloko profesional gehiagok parte hartzea gustatuko litzaieke, baina diote jendea ez dela animatzen. Gainera, gizonezko bakarra dago taldean: Maxi Gutierrez. Gaineratu dute urtero egiten duten indarkeriaren aurkako ikastaroan ere kosta egiten dela plaza kopurua betetzea. “Horrek erakusten du non gauden eta egiteko dagoen guztia”, dio Maite Bruña erizainak.

Taldeak duen beste helburuetako bat Osakidetzako historian tratu txarrak jasan dituen emakumearen diagnostikoa ipintzea da. “Osasun arazoa dela esan dugu eta osasun arazo guztiek diagnostikoa behar dute”, azaldu dute Maite Bruña eta Lourdes Liziagak. Medikuei kosta egiten zaie diagnostikoa jartzea baina emakumeari laguntzeko modu bat dela diote: “Agian ez mo-

mentu horretan, baina urte batzuk geroago, emakumeak salaketa bat jartzea erabakitzen badu, tratu txarrak jaso izan duela idatzita egongo da”, gaineratu dute.

Protokoloaren arabera, emakumeak dituen lesioak idatzi behar ditu medikuak, objektiboak; bestalde, emakumearen baimena daukala ere idatzi behar du; eta baita medikuaren izena eta elkargoko zenbakia ere. Hiru orri bete behar dira: bat epailearentzat, beste bat emakumearentzat, eta bestea Osakidetzako historian uzteko. Emakumeak salaketa jarri ez arren, diagnostiko horrekin prozesu judiziala has daiteke. Prozesu judiziala has daitekeenez mediku asko ez dira diagnostikoa egitera ausartzen. “Beldurra dagoela esaten da, baina zergatik izan behar dugu profesionalok beldurra?”, galdetu dute elkarteak kideek.

BERDINTASUNEAN HEZI BEHAR DITUGU

Egiteko asko dagoela gaineratu dute, baina ez osasun arloan, gizarrean baizik. Diote deigarria dela Eusko Jaurlaritzak nerabeei zuzendutako atari bat martxan jartzea. “Zergatik egin da hori? Tratu txar kasu asko nerabeen artean ikusten ditugulako. Nerabeek uste dute normala dela bere mutil lagunak sakelakoa hartu eta mezuak begiratzea. Baina hori ez da normala eta ezin dute onartu”, azaldu dute. Gauzak gaizki egiten ditugula erakusten du horrek, informazio larregi dago baina gaizki enfokatuta. Beste bide bat bilatu behar dugula diote. “Txikitatik hezi behar ditugu berdintasunean, haurtzaindegitik: errespetua erakutsi behar diegu”, gaineratu dute.

“Nerabeek uste dute normala dela bere mutil lagunak sakelakoa hartu eta mezuak begiratzea. Baina hori ez da normala eta ezin dute onartu”.



Zer eskaintzen du elkarteak?

Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko elkar- tea da Araba eskualdeko osasun-zentroetan sortu berri du- tena. Maxi Gutierrez Jodra medikuak, Mari Sol Perez de San Roman Ruiz de Munain medikuak, Rakel De Marcos Moya medikua-pediatrak, Nerea Echavarri Escribano medikuak, Lourdes Liziaga Seco erizainak, Maite Bruña Pastor erizainak, Maria Aranzazu Ortiz Cerezo erizainak eta Ana Mar Achurra Rodriguez pertsonaleko teknikariak osatzen dute taldea. Tal- de irekia dela azaldu dute eta profesional gehiagoren lagun- tza gustura jasoko luketela.

ATENCIÓN A LAS MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA DE GÉNERO

El grupo surge tras la incorporación a la comarca de Maxi Gutiérrez, un profesional médico de familia que venía trabajando sobre la violencia de género en el ámbito sanitario desde hacía tiempo. Tras participar en el curso de formación de formadores que el Ministerio de Sanidad imparte en el Instituto Carlos III, se elaboró un proyecto de formación para los profesionales de la comarca que incluía la formación de un grupo de trabajo. Esta propuesta fue presentada a la dirección de la comarca, que lo aprobó e impulsó desde su inicio. El objetivo del grupo es mejorar la atención a las mujeres víctimas de violencia de género en las consultas de Atención Primaria de Comarca Araba. Para ello, se han implementado diferentes acciones: sesiones de sensibilización en los centros, cursos presenciales, sesiones de casos clínicos, etc. También, se hace un seguimiento de las acciones que se van dando en las diferentes unidades, se impulsa la relación con los servicios sociales y se difunde información relevante para los profesionales. El grupo se compone de profesionales sensibilizados con el tema. En este momento participan profesionales de la medicina de familia y pediatría, de enfermería y profesionales de la gestión. El grupo está abierto a nuevas incorporaciones.

BILBOKO ARTE EDER MUSEOA




ARTEA ETA GIZARTEA BEHATZEKO HURBILEKO ALTXORRA

BILBOKO ARTE EDER MUSEOAK 100 URTETIK GORAKO HISTORIA LUZEA DU, ETA GUGGENHEIM MUSEOAREN MEHATXUARI AURRE EGITEN ERE JAKIN DU, FUNTZIONAMENDUA ETA ESKAINTZA ETENGABE BERRASMATUZ. BILBOTARRENTZAT BETIDANIK OSO HURBILEKO IZAERA DU MUSEOAK ETA GERO ETA BISITARI GEHIAGO ERAKARTZEN DITU. HAIN ZUZEN ERE, AZKEN BI URTEOTAN MUSEOAK ORAIN ARTEKO BISITEN ERREKORRA JASO DU.

Bilboko Arte Eder Museoa 1908. urtean sortu zen eta 1914an zabaldu zituen ateak. Gerora, 1924an, Arte Modernoko Museoa sortu zen; eta 1945ean bi bildumak Fernando Urrutia eta Gonzalo Cardenas arkitektoek eraikitako estilo neoklasikoko eraikinean batu zituzten. Eraikin bera da gaur egun ere museoaren kokaleku, nahiz eta azken hamarkadetan hainbat gune berri gehitu zaizkion. 2001ean amaitutako eraberritze lanen ondorioz museoak handitu egin zuten, eta gaur egun 13.914 metro koadroko azalera du. Azalera horretatik, 5.089 metro koadro bilduma iraunkorra gordetzen duten 33 aretotan banatzen dira; eta 1.142, aldi baterako erakusketek eta bisitariari arreta egiteko zein barne zerbitzuetarako gune eta bulegoek hartzen dituzte.

Sortu zutenetik, Bilboko Arte Eder Museoaren helburua da antzinako arteko eta arte moderno eta garaikideko bildumak biltzea, gordetzea, aztertzea eta erakustea eta, horrekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko balio kulturalak ezagutzera ematea.

Hori bermatzeko, museoak ondare multzo nabarmena du erakusgai, 10.000 pieza ingurukoa. Horien artean 1.500 margolan, 400 eskultura, paper gainean egindako 6.000 lan baino gehiago eta arte aplikatuetako beste mila pieza inguru, besteak beste. XIII. mendetik hasita gaur egunera arteko Europa eta Espainiako eskola nagusien adibide ugari eta inon dagoen Euskal Artearen bilduma handiena jasotzeaz gain, Ekialdeko Arteari buruzko bilduma eta Kristo aurreko VI. Mendeko brontze etrusko, italiako, erromatar eta iberiarren bilduma ere badira.



HAINBAT BILDUMA ETA ARETO

Azken aldian aldikako erakusketek sona handia eman diote museoari: iaz Antonio Lopezenak izandako arrakasta, eta egunotan ikusgai dagoen Boterorena, besteak beste. Hala, 2011n 260.000 bisita izan zituzten eta 2012an 280.000ra helduko direla uste dute.

Hala ere, oso aberatsa da museoaren erakusketa iraunkorrean 104 urte hauetan bildutakoa. Errenazimendua, Espainiako Barrokoa, Espainiako eskola italiarra, Italiako eta Flandesko Barrokoa, XIX. mendea, Euskal Artistak eta Arte Garaikidea aretoetan banatuta, maisulanak daude batuta: Martin de Vosen *Europaren bahiketa*,

ONDARE MULTZO NABARMENA ERAKUSGAI,

10.000 pieza ingurukoa. Horien artean 1.500 margolan, 400 eskultura, paper gainean egindako 6.000 lan baino gehiago eta arte aplikatuetako beste mila pieza inguru, besteak beste.

El Grecoren *Deikundea*, Francisco de Goyaren *Martin Zapaterren erretratua*, Joaquin Sorollaren *Erlikari musua ematen* eta, denboran jauzi handia eginez, Eduardo Chillidaren *Dardara-burdirak III*, Antoni Tapiesen *Obalo handia* zein Miquel Barceloren *Kalabazak*, besteak beste. Horrez gain, ikusmin handia pizten duen Euskal Arteari buruzko bilduma handiena ere bai.

INDUSTRIALIZAZIOAREN ONDORIO

Museoaren sorrera ulertzeko, Industrializazioaren garaira jo behar dugu, XX. mendearen hasierara. Meategiak, siderurgia, ontzigintza eta bankuak biderkatu eta hainbat

DATUA

13.914

metro koadroko azale-
ra du Bilboko Arte Eder
Museoak.



DATUA

260.000

bisita izan zituzten 2011n
eta 2012an 280.000ra
helduko direla uste dute.

enpresari aberastu ziren. Horiek, Bilbok Parisen eta Londresen antza har zezan, kultura eta aisialdirako azpiegiturak hobetzen hasi ziren. Testuinguru horretan jaio zen museo, eraldaketa ekonomiko baten emaitza gisa: burgesiako bildumagileak bidaiatzen eta atzerrian artea erosten hasi ziren, burgesek gidatutako erakundeek kultura eta artea diruz laguntzen eta sasoi berean Euskal Herriko lehen korronte artistikoa jaio zen. “1924an Arte Modernoko Museo sortu zen Arteta, Zubiaurre, Zuloaga eta beste artista euskaldun askori eta horien nazioarteko lagun artistei lekua egiteko”, gogoratu du azken hamar urte baino gehiagotan museo zuzendari den Javier Viarrek.

Denboran aurrera eginez, Viarrek nabarmendu du Francoren diktadurak iraun bitartean museo erabat utzita egon zela eta azpiegiturak une larriak bizi izan zituela. Gerora, baina, aintzat hartzen hasi zen museoaren jarduna. Hiru aro nagusi bereizten ditu: lehenengoa, 80ko hamarkadatik 90eko bitartekoa. Aspaldiko partez, erakundeek museoari laguntzeari ekin zioten, ondarea handituz eta museo modernizatuz; bigarrena, Guggenheimen sorrera. Horrek zenbait erakunde publiko hiriei begira museoek duten garrantziaz ohartaraztea ekarri zuen, eta, ondorioz, Arte Eder Museoaren egitura modernizatzea; eta hirugarrena, azken hamarkadetan egindako lana. Lan horri esker, Bilboko museo Europa edozein museoaren parera dago antolamendu eta irudi modernoarekin.

GUGGENHEIM EFEKTUA

Bitxia da Arte Eder Museo Bilbok bizi izandako industrializazio ga-

raiaren ondorioz sortu izana, eta, 80 urte beranduago, hiriak behar zuen eraldaketaren giltza eta ikur beste museo bat, Guggenheim, izatea. Javier Viarren esanetan, “museoa baino gehiago, eraikin-ikuskizuna” den Guggenheimek

GOYARIK KRITIKOENA
ETA ASKEENA

Ekainetik irailaren bukaera bitartean Goya. Asmatutako estampak erakusketa ikusgai egon da Arte Eder Museoan. Museoaren ondare dira lan horiek guztiak, eta lau bildumak jendaurrean jartzea erabaki zuten. Pintura garaikideari eta abangoardiari hasiera eman zion margolari espainiar handiaren grabatuen lau bilduma izan dira ikusgai: *Kapritxoak*, *Hondamendiak*, *Tauromakia* eta *Burugabekeriak*. Bilbon bildutako 224 lanek zeresan handia dute Goyak asmatutako irudien grabatuan mugarrira jarri zutelako eta horien teknika inork baino hobeto mende-

gauza onak ekarri dizkio Arte Eder museoari: “Erakunde publikoetako arduradunak konturatu dira museoek hiriari asko eman diezaioketela, eta beste modu batean baloratzen hasi dira”. Bisi-tei dagokienez, Bilbora kanpotar gehiago erakarri ditu Gehryren eraikinak, eta horietatik batzuk Arte Eder museo ikustera joaten dira. Museo desberdinak dira biak eta, horren harira, Viarrek orriotara hausnarketa txiki bat ekarri du. “Arte Eder Museo kontserbadorea dela diotenei esango nieke kontserbadorea, modernoa edo irekia ez dela denboraren arabera, norberak artelana aztertzeo begiratzeko modua baizik”.




ratzen zuelako. *Kapritxoak* 1797 eta 1799 bitartean egin zuen garai hartako gertaerei kritika egiteko; (*Gerraren*) *hondamendiak* 1810ean, gerraren izugarrikeriak salatzeo; *Tauromakia*, 1815 eta 1816 artekoa, zezenketen zale sutua zelako; eta, azkenik, *Burugabekeriak*. Goyaren esamolde ezagun hori baliatu dute egilea hil ostean editatutako bildumarik bereziena izendatzeko. Erakusketa honek oso harrera ona izan du, eta 46.168 pertsona izan dira berori ikusten.

1924AN ARTE
MODERNOKO
MUSEOA SORTU ZEN

Arteta, Zubiaurre, Zuloaga eta beste artista euskaldun askori eta horien nazioarteko lagunak diren beste artistei lekua egiteko.

BOTERO, KOLORE ETA BOLUMENAREN OSPAKIZUNA



Boteroren *Ospakizuna* erakusketa Bilboko Arte Eder Museora ekartzea sekulako ospakizuna da. Fernando Botero (Medellin, Colombia, 1932) XX. mendearen erdiko artista latinoamerikarretatik bizirik dagoen bakanetakoa da eta ospe itzela du nazioartean. Artistak 80 urte bete dituen hone-tan bere ibilbideari buruzko erakusketa berezia prestatu dute, Mexiko DFko Arte Eder Museoan 250.000 bisita jaso berri dituena. 79 margolanek eta eskultura batek -brontzezko *Bridadun zaldia*- osatzen dute bilduma. Erakusketak kolonbiarraren hastapenetako lanetako batzuk, La-tinoamerikako elizako pertsonaiak, zirkua, tauromakia, beste margolariei egindako erretratuak, natura hila eta Irakeko Abu Ghraib espetxeari egindakoak jaso ditu, besteak beste. Fernandoren alaba Linak egindako katalogoan, Carlos Fuentes eta Mario Vargas Llosaren idatziak daude, baita Boterok berak irudiz hornitutako bost ipuin ere. Heldu da, hortaz, kolorearen eta bolumenaren goraipamena Bilbora.



MUSEO DE BELLAS ARTES

ESPEJO DEL PENSAR Y EL CREAR VASCO

El Museo de Bellas Artes de Bilbao fue creado en 1908 y abrió sus puertas en 1914. Posteriormente, en 1924, nació el Museo de Arte Moderno; y en 1945 ambos se unieron en un edificio de estilo neoclásico, que fue ampliado en 2001. El museo cuenta con una superficie de 13.914 metros cuadrados donde se pueden encontrar más de 10.000 piezas de arte. Piezas de las principales escuelas artísticas de España y Europa desde el siglo XIII hasta nuestros días, así como la mayor colección de Arte Vasco existente, colecciones de Arte de Oriente, bronce etrusco, itálico, romano e ibérico, entre otros.

Además, de la imponente colección permanente del museo que incluye los grabados de Francisco de Goya recién expuestos, también cuentan con una interesante oferta de exposiciones temporales; es el caso de la de Antonio López que se expuso el pasado año, y de la actual de Fernando Botero que recorre 80 años de su prolífica trayectoria. Estos dos últimos años el museo ha tenido record de visitas, lo que demuestra que es un ente que está continuamente reinventándose.

NURIA ROSELL | ERREHABILITAZIO MEDIKUA MENDARON

NURIA ROSELL KATALUNIARRA ERREHABILITAZIO MEDIKUA DA MENDAROKO OSPITALEAN. EUSKAL HERRIRA ETORTZEAREKIN BAT EUSKARA IKASI ZUEN ETA HIZKUNTZA HORRETAN HITZ EGITEN DIE PAZIENTEEI. MENDIAN IBILTzea GUSTUKO DU, ETA ERROIBIDE IRUN SASKIBALOI TALDEKO JOKALARIA DA.

1 | Nolako pazienteak artatzen dituzu kontsultan?

Normalean helduekin egiten dut lan eta batzuetan umeekin; hala ere, era guztietako pazienteak etortzen dira nire kontsultara. Umeekin gauza desberdinak egiten saiatzen gara, baina, batez ere, beraiekin jolas egiten dugu, ezin izaten dugu-eta ezer gehiagorik egin. Txikienak, esaterako, bi urte ditu. Hala ere, oso pozik etortzen dira errehabilitaziora eta jarrera horrek, besteak beste, mobilitate eta psikomotrizitateko ariketak egitea ahalbidetzen digu.

2 | Nola bizi duzu errehabilitazio medikua izatearen lana?

Egia esan oso modu positiboan bizi dut lan hau. Hemendik pasatzen diren pazienteak pozik ateratzen dira, eta hori niretzat oso pozgarria da.

3 | Zein da zure pazienteek gehien edukitzen duten gaitza edo mina?

Denetarik dago, baina bizkarreko mina, sorbaldako mina eta lepoko mina izaten dira ohikoenak.

4 | Errehabilitazio prozesuan pazientzia izatea eta ahalegintzea ezinbestekoak dira, ezta?

Bai. Gauza hauek poliki doaz eta pazientziarekin hartu beharrekoak dira. Pazientearen inplikazioa eta ahaleginak ere ezinbestekoak dira, ariketa asko egin behar izaten dituzte-eta. Nik, adibidez, fisioterapeutekin egiten dut lan eta, egia esan, eurek egiten dute lan handiena gimnasioan. Nik antolaketa, egin beharreko lana, zehazten diet eta beraiek egiten dute lan guztia gimnasioan.

5 | Zein da, beraz, zure eginbehera?

Mobilitateari eta indarrari dagokion neurriak hartzen dizkiot

pazienteari. Ondoren, tratamendua idatzi eta fisioterapeutari ematen diot pazientearekin agindutako ariketak egin ditzan. Horretaz gain, pazienteak etxean ere egin behar izaten ditu bai nik eta bai fisioterapeutak agindutako ariketa gehigarriak.

6 | Zer da ezinbestekoa errehabilitazioko medikua izateko?

Batik bat, sen ona izatea, gauzak bere horretan ulertzeko. Hona, esaterako, hanka gaizki duen paziente bat etor dakiguke, baina horretaz gain, paziente horrek harreman arazoak izan ditzake.

7 | Hortaz, batzuetan psikologo lana ere egin behar izaten duzue?

Bai, guk, mediku bezala, pazientea bere osotasunean ikusi eta arazo horiek identifikatzen jakin behar dugu, ahal dugun heinean laguntza emateko. Medikuoak askotan egin behar izaten dugu psikologo lana.

8 | Errehabilitazio prozesu guztiek denbora muga bat dutela esan ohi da?

Bai, hobekuntza puntu bateraino heltzen da. Errehabilitazioa egiten da oreka puntu batera heldu arte eta batzuetan ezin da aurrera jarraitu, gorputzak mugatu egiten duelako pertsona. Paziente bakoitza desberdina da eta bakoitzaren mugak desberdinak dira. Baina muga egon bada, bestela, bizitza osoa pasatuko genuke errehabilitazioan eta hori ere ezin da.

Ahaleginak: Esfuerzos.

Errehabilitazioa: Rehabilitación.

Gaitza: Dolencia.

Gehigarriak: Complementarios.

Sorbaldak: Hombro.

“MEDIKUOK PAZIENTEA OSOTASUNEAN IKUSI BEHAR DUGU, ASKOTAN EGIN BEHAR IZATEN DUGU PSIKOLOGO LANA”



“TXIRRINDULARITZAN GARRANTZITSUA DA ERORIKORIK EZ IZATEA”

BEÑAT INTXAUSTI

BEÑAT INTXAUSTI MOVISTAR TEAM TALDEKO TXIRRINDULARIA DA. MUXIKARRA SORTZEZ, ZORNOTZAN BIZI DA TXIKITATIK. DENBORALDI BOROBILA EGIN DU INTXAUSTIK: ASTURIASKO ITZULIAN PODIUMEKO GORENEKO MAILARA IGO ZEN ETA ESPAINIAKO VUELTRAN HAMARGARREN EGIN DU. GAINERA, VALVERDE TALDEKIDEARENTZAT LAN ONA EGIN DU. DENBORALDIA AMAITU BERRI, ABENDURA ARTE DESKANTSATU EGINGO DUELA AZALDU DU.

PROFESIONALA

2007an egin zuen salto profesionale-tara Intxaustik, eta 2010ean Movistarrekin fitxatu zuen.

Amaitu duzu denboraldia, zenbat kilometro egin dituzte zure hantzek?

Ez dut kontua eramaten, baina 25 eta 30 mila bitartean egiten ditugu urtean. Aurten bi helburu izan ditut: Italiako Giroa eta Espainiako Vuelta. Nik uste dut biak oso ondo atera direla, batez ere, Espainiako Vuelta. Denboraldi oso ona izan da garaipenak lortu ditudalako eta helburuak bete ditugulako.

Apirilean Asturiasko itzulia irabazi zenuen. Nolakoa izan zen?

Italiako Giroa baino astebe-te lehenago izan zen. Oso forma onean nengoen eta hori aprobetxatu nuen. Gainera, taldekideek hiru egunetan oso lan ona egin zuten niretako, eta nik azkeneko egunean garaipenarekin **biribildu** nuen itzulia.

Espainiako Vueltan talde onenaren saria eroan duzue.

Lehenengo etapan taldekako **erlojuaren aurkako** etapa irabazi genuen. Taldea oso motibatuta irten zen itzulia Iruñean hasi zelako eta taldea bertakoa delako. Gainera Movistarrendako Espainiako Vuelta garrantzitsua da beti. Nik neuk uste dut oso ondo atera dela. Alde batetik, ondo egin dut lan Valverdearentzat, eta, bestetik, ondo defenditu dut nire 10. postua.

Erorikorik ez izatea eta lesioak errespetatzea garrantzitsua izango da txirrindularitzan.

Gure kirolean garrantzitsua da erorikorik ez izatea. Erorikoen ostean normalean lesioak izaten dira. Aurten, zorionez, zortea izan dut bai erorikoekin eta baita lesioekin ere.

Iaz, Tourreko lehenengo etapan jausi eta lesionatu arren zortzi egun iraun zenituen bizikleta gainean, erradioa apurtuta. Nola egiten da hori?

40. kilometroan jausi nintzen, eroriko handi batean. Berehala konturatu nintzen zerbait hautsi nuela, baina ziklistak horrelakoak gara, beti nahi izaten dugu amaitu, eta Tourra bada, ba gehiago. Egin zidaten erradiografian ez zen



ikusten ezer hautsi nuenik; hortaz, aurrera egitea erabaki genuen. Baina zazpigarren egunean, beste erradiografia bat egin zidaten eta argi ikusi genuen erradioa apurtuta zegoela. Hurrengo eguneko etapa mendiko etapa zenez, ez irtetea erabaki genuen. Lesio horrekin aurrera egitea arazoa izan zitekeen; berriro jausiz gero lesioa larriagoa izan zitekeen-eta.

Kolpe latzagoak ere izan dituzu, fisikoak ez direnak.

Bai, horiek gogoragoak dira. Iazko maiatzean, Tourra preparamen ari ginela Xavi Tondo laguna hil zen istripuz Granadan. Erorikoak baino gogorragoa izan zen hori jasatea. Egia esan, momentu gogorak eta inoiz ahaztuko ez ditudanak izan ziren, baina lagunena eta taldearen laguntzarekin aurrera egin nuen.

Atzera begira jarriko gara. Nola hasi zinen ziklismoan?

Txikitan futbolekin ibili nintzen eta 10 bat urterekin hasi nintzen bizikletan. Osaba bat bizikletan zebilen Zornotzako eskolan eta haren lasterketak ikustera joaten nintzen. Hala hasi nintzen herriko taldean. Udan bizikletan ibiltzen nintzen eta neguan futbolekin. 12 urterekin aukeratu egin behar izan nuen eta bizikleta hartu nuen.

Zer eman dizu txirrindularitzak eta zer kendu?

Gaztetatik asko bidaiatu dut, leku askotara, egia esan. Europa guztia ezagutu dut 26 urterekin, eta baita, besteak beste, Argentina, Txina ere. Gainera, taldean beste herrialde batzuetako ziklistak izan ditugu eta eurekin beste kultura batzuk eta pentsatzeko modu batzuk ezagutu ditut. Kendu, zer kendu didan? Lehen esan dugun bezala txirrindularitzak zaintzea eskatzen du; asko entrenatu behar da, baina baita deskantsatu, etxean lasai egon ere. Horrelakoetan, beti nahi izaten duzu lagunekin egotea, eurekin hondartzara joan edo oporretara... familiarekin egotea ere faltan nabaritzen da. Urtean zehar egun asko egiten ditugu etxetik kanpo.

“Txirrindularitzak
zaintzea eskatzen du;
asko entrenatu behar
da baina baita deskantsatu ere”.

Aurrera begira, noraino iristea gustatuko litzaizuke?

Uste dut oraintxe nagoela adinik onenean, 27tik 32ra bitartean izaten da onena. Aurtengo aurrerapausoa eta gero nik uste dut

GARAIPENAK

Asturiasko itzulia eta Vueltako taldekako erlojuaren aurkako etapa irabazi ditu aurtun.

gehiago eman ahal dudala. Aurtun 10. egin dut itzuli handi batean, eta nik esperantza eta ilusioa daukat, eta, horretarako, entrenatu eta zaintzen naiz, 5. postua edo podiuma lortzeko. Helburu bat lortzeko, norberak pentsatu behar du lortu ahal duela, eta, horretarako, entrenatu behar du. Gero ikusiko da lortzen dudan edo ez.

“Helburu bat lortzeko,
norberak pentsatu
behar du lortu ahal
duela eta, horretarako,
entrenatu behar du”.

Euskaltel-Euskadi auzia dela-eta txirrindulari askok daukazen iritzia plazaratu duzue. Zergatik?

Sentimendu aldetik idatzi dugu, guk uste duguna esan dugu. Ez zaio garrantzia larregi eman behar, gure iritzia plazaratu besterik ez dugu egin.

Auzia: *Conflicto, pleito*

Biribildu: *Redondear, rematar, completar*

Erlojuaren aurka: *Contrarreloj*

Lasterketak: *Carreras*

Latza: *Duro, difícil*

Plazaratu: *Hacer público algo, dar a conocer*

GURUTZETA, EUSKARAREN PRESENTZIA HANDITUZ OSPITALE ERRALDOI BATEAN

GURUTZETA OSPITALEAK IA 5.000 LANGILE DITU, ETA EZKERRALDEA -ENKARTERRI ETA URIBEKO ESKUALDEEZ GAIN, BIZKAIA OSOKO ETA BESTE HAINBAT PROBINTZIATAKO PAZIENTEEI EMATEN DIE ZERBITZUA. INGURUNEAN EUSKARAREN ERABILERA TXIKIA BADA ERE, URTEETAN EGINDAKO LANAREN ONDORIOZ, GURUTZETA OSPITALEAN EUSKARAK GERO ETA PRESENTZIA HANDIAGOA DU ETA LANGILEAK EUSKARAREN GARRANTZIAZ KONTZIENTEAGOAK DIRA.

Euskara planaren ebaluazio partziala egin eta gero, 2009an Gurutzetako Euskara Zerbitzuak hainbat ondorio jaso zituen. Hain zuzen ere, euskara ikasteko diru laguntzak eta liberazioak bideratzen luze aritu ostean, jabetu ziren ospitaleko langile euskaldunek ere tresna gehiago eskatzen zituztela.

Ordura arte ere bazen **trebakuntza** ikastarorik Gurutzetan, baina haiek erakunde zentraletik antolatu eta Gurutzetatik kanpo gauzatzen ziren. Hala, Gurutzetako Euskara Zerbitzuak adostu zuen hobe zela ikastaro horiek bertan koordinatzea eta baita ikastaroak Gurutzetan bertan gauzatzea ere. Horri esker, bertako langileek elkar ezagutu eta horrek **bidea ematen die** gerora ere lanean elkarri euskaraz hitz egiteko. "Elkar ezagutzea ezinbestekoa da euskaldunak identifikatu eta, hala ohiturak aldatuz, euskaraz egiteko. Halako pauso txikiekin emaitza handiak lor daitezke luzera", azaldu du Gurutzetako Euskara Zerbitzuko Jabi Gomezek.

2. HIZKUNTZ ESKAKIZUNA PRESTATZEKO TAILERRAK

Horrez gain, euskara planaren go-

goetatik jaio zen euskararen bigarren hizkuntza-eskakizuna prestatzeko tailerraren ideia, euskara ikasten ari direnei laguntzeko asmoz. Urtero bi **ekinaldi** egiten dituzte, azterketa deialdiekin bat datozenak. Euskara Zerbitzutik baldintza bakarra jartzen dute: euskara azterketa egiteko izena emanda izatea; eta laguntza ematen diete hizkuntza-eskakizuna lortzeko. Tailerrak erdipresentzialak dira. Aurrez aurreko bost saio egiten dituzte idatzia prestatzeko, eta gainontzean lanak on line biddaltzen dizkiote elkarri. Gerora, ahozkoa ere lantzen dute. Saio presentzial horiek 14:30etik eta 15:30era bitartean egiten dituzte Osakidetzaaren eta langileen ahalgin partekatua izan dadin.

MINTZAPRAKTIKA, EUSKARAREN LOTURARI EUSTEKO

Euskara ikasten aritu diren langileekin lotura ez hausteko, Euskara Zerbitzuak mintzapraktika saioak ere martxan jarri zituen. Hasieran Euskara Zerbitzuko langileek gidatzen zituzten saioak, baina 2010-2011 ikasturtean Mikelats Euskaltegiarekin elkarlanean egin zuten, eta orain Iberba enpresarekin ha-



JARDUNALDIA

2007an Gurutzeta Ospitalean Euskara eta Osasuna jardunaldia antolatu zuten. Bizkaiko ospitalea aitzindaria izan zen eta handik bi urtetara Donostia Ospitaleak hartu zuen lekukoa, beste jardunaldi bat antolatuta.

rremanetan daude. "Mikelatsekin ospitaleko profesional guztiak baten genituen saioetan, baina orain sanitario eta ez sanitarioak bereizi ditugu. Sanitarioek gehiago lantzen dute hiztegi sanitarioa, eta bestelako langileek arreta", argitu du Gurutzetako Euskara Zerbitzuko Jabi Gomezek.

Euskara Zerbitzuko ekimenek izan duten erantzuna jakiteko, hemen datu batzuk: 2009an, bederatzi langilek parte hartu zuten trebakuntza ikastaro korporatiboetan; 2010ean, beste bederatzi langile aritu ziren ohiko trebakuntza horretan, eta 55 bigarren hizkuntza-eskakizuna eskuratzeko Ospitaleak antolatutako tailerrean; guztira, 64 langile. Eta 2011n, jada, 77 lagun izan ziren gure trebakuntza ikastaroetan ibili zirenak.

“Elkar ezagutzea ezinbestekoa da euskaldunak identifikatu eta, hala ohiturak aldatuz, euskaraz egiteko”.

**JABI GOMEZ**

GURUTZETA OSPITALEKO EUSKARA ZERBITZUA

"GAUR EGUN LANGILEEK NORMALTZAT DUTE EUSKARA ESKATZEA, ETA EUSKARAZ EZ DAKITENAK KONTZIENTE DIRA GABEZIA BAT DUTELA".

Ospitale baten euskara ezagutzaz eta erabileraz hitz egin aurretik, kontuan hartu behar da ingurune geografikoa...

Bai, gehienetan biak parera joaten dira-eta. Gure ingurune geografikoa inguru nahiko erdalduna da. Plana abiarazi zenean, Ospitaleari zegokion eremuan euskararen eza-gutza %21ekoa zen eta erabilera txi-

GURUTZETAKO

Euskara Zerbitzuko arduraduna da Jabi Gomez. Euskararekin lotutako ohiturak aldatzeko lanean dihardu taldean.

kiagoa. Baina, Gurutzeta erreferentziatzeko zentroa da Bizkaia osorako pediatrian, **erredura handietan**, transplanteetan... Horren ondorioz, beste leku askotako jendea ere etortzen da hona.

Zer profil dute Gurutzetako langileek?

Gurutzetako langileen profila honakoa da: euskaldun berriak dira eta adineko jendea. Euskaltzagitik pasa dira, bertan 10. urratsera arte ikasi eta titulua eskuratu dutenak. Beraien kezka nagusia izan ohi da beraien ingurunean eta lanean euskaraz egiteko aukera gutxi dutela. Horregatik, bezero edo paziente batek beraingana euskaraz jotzen duenean larritu egiten dira, euskara **herdoildu** egin zaielako eta lotsatu egiten direlako. Badakite **gabezia** bat dutela.

Aztertu izan duzue Gurutzeta Ospitalean dagoen euskararen erabilera?

Ez dugu ospitale guztiko erabilera neurtu. Azkeneko neurketa 2009an egin genuen, eta aztertu genuen bezeroen euskara erabilera, ez langileena; euskara zerbitzu hizkuntza moduan. Neurketak lehentasunezko unitateetan egin genituen: pediatriako larrialdietan, telefonogunean, harreretan eta informazio puntuetan. Jasotako emaitzen arabera, ikusi genuen jendeak euskaraz gutxi eskatzen zuela. Baina, aldiz, ikusi genuen

langile euskaldun gehien dau-dun guneetan bezeroek euskaraz gehiago eskatzen zutela. Zergatik? Beraien artean identifikatzen direlako agurren eta antzekoen bitartez. Zorionez, hemendik aurrera, Osakidetzako zentro guztietan ezarriko dugun identifikazio sistemaren bitartez errazagoa izango da euskaldunak detektatzea.

Bilakaerarik izan al du euskararen erabilerak Gurutzetan azken urteotan?

Bai. Ni hemen lanean hasi nintzenean, 2004an, ez zegoen euskara planik, ezta hizkuntz eskakizunik ere. Hasieran batzuek kontra egin zuten, baina gaur egun langileek normaltzat hartzen dute euskara eskatzea, logikoa dela diote; eta euskaraz ez dakitenak kontziente dira gabezia bat dutela, horrekin arduratuta daude. Bestalde, sustraiak jartzen ari gara aurrera begira, eta, adibidez, sartzen diren langile berriei hizkuntza ofizialak erabiltzeko harrera plana egiten zaie.

Bidea eman: *Dar paso, permitir.*

Ekinaldi: *Intento, sesión.*

Erredura Handiak: *Grandes Quemados.*

Gabezia: *Carencia.*

Herdoildu: *Oxidar, debilitar.*

Trebakuntza: *Formación, capacitación.*

**VERONICA FERNANDEZ**
ADMINISTRAZIOKO
LANGILEA.

Ezkerraldeko hainbat anbulatorioan administrazioan lan egin izan dut eta orain Gurutzetan nago berriro ere administrazioan. Aurretik euskaltegian eta hizkuntza eskolan euskara ikasten ibili nintzen, eta orain dela bi urte lanerako hizkuntz eskakizuna ateratzeko tailerrean izena ematea erabaki nuen. Oso interesgarria iruditu zitzaidan, askoz gehiago ikasi nuelako. Azterketako pausoak berraztertzeaz gain, gutunak idazten ikasi genuen... eta guztia giro oso onean. Jendea-ri animatzeko esango nioke. Zoritarrez, euskaraz hitz egiteko aukera gutxi izaten ditut lagun artean eta lanean, tarteka informazio gunean bezeroen batzuekin.

**RAQUEL BENITO**
TEKNIKARIA
ANTOLAKUNTZAN.

Orain dela bospasei urte oinarritzko trebakuntza ikastaroan izena eman nuen. Interesgarria izan zen, eta oso positiboa iruditu zitzaidan Osakidetzako beste hainbat profesional euskaldun ezagutzea. Gainera, trebakuntza ikastaroak balio izan zidan jakiteko ea erabilitako formula eta esamoldeak egokiak ziren. Badakit beti zaila dela denbora ateratzea, baina jendea animatuko nuke euskara lantzen jarraitu eta hobetzeko bidea ematen duelako. Askotan hala-ko ikastaroetan baino ez dugu euskara erabiltzen. Lotsa kendu beharko genuke gainetik eta dakiguna erabili.



HONDARRIBIKO OSASUN-ZENTROA “HERRITARRAK OSO POZIK BERRIZ- TATUTAKO OSASUN-ZENTROAREKIN”

HONDARRIBIKO OSASUN ZENTROAK PASA DEN MAIATZEAN IREKI ZITUEN ITSAS ETXEO ERAIKIN ERABERRITUAREN ATEAK, BI URTEZ BITERI KALEKO BEHIN-BEHINEKO ANBULATORIOAN EGON ONDOREN. EKIPAMENDU BERRIAREKIN ETA ZERBITZUEN ESKAINTZA ZABALAGOAREKIN HASI DU BERE IBILBIDE BERRIA.

80ko hamarkadaren hasieran, osasun-zentro bat irekitzeko beharra zegoela identifikatu zen Hondarribian. Hori horrela, 1981ean lehenengoz inauguratu zen zentroa, bertako herritarrak artatzeko xedearrekin. Urteak aurrera pasa ahala, baina, osasun-zentroa txiki eta **zaharkituta** geratu zen, eta, beraz, 2010ean berriztatze lanei ekin zitzaizkien 16.000 hondarribitar baino gehiagori zerbitzu hobea bermatzeko aldera. Obrek iraun duten bi urteetan, aurrefabrikatuek osaturik egon da behin-behineko anbulatorioa Biteri kalean. 2012ko maiatzaz geroztik, ordea, berriztatu dago martxan osasun-zentroa Itsas Etxean, baina oraingoan berri-tua.

MODERNOA ETA ZABALA

Hondarribiko Osasun-Zentro **eraberri-tua** modernoa, zabala eta argisua da. 834 metro karratu gehiagorekin handitu

ostean, gaur egun 1.300 metro karratu-ko azalera izatera iritsi da hiru solairuz osatuta dagoen eraikina. Beheko solairuan bezeroaren arreta-zerbitzua, **proba osagarrien** gela eta **sendaketa** gelak ipini dituzte. Lehenengo solairuan, medikuntza orokorreko zazpi kontsulta eta erizaindegiko beste hainbeste jarri dituzte. Bigarren solairua, berriztatu, pediatriako bi kontsulta, erizaintza pediatrikorako bi kontsulta, emakumeen arreta sail bat, ginekologo eta emaginarentzako kontsulta bat eta medikuntza orokor eta erizaintzarako kontsulta batekin hornituta dago. Hirugarren eta azken solairuak errehabilitazio gela bat eta haurrentzako dentista bat ditu.

LANGILEAK ETA ORDUTEGIA

Langileei dagokienez, Hondarribiko Osasun-Zentroak hamar familiako mediku, bi pediatra, bederatzi erizain, emagin

PORTUAN

bertan kokatuta dago osasun-zentro berriztatua, leku ederrean. Argazkian lan-taldeko hainbat kide, eskuman Miren Garai zuzendaria.

Osasun-zentroan hamar familiako mediku, bi pediatra, bederatzi erizain, emagin bat, ginekologo bat eta administrazio-zazpi langile aritzen dira.

bat, ginekologo bat eta administrazio kontuetan aritzen diren zazpi pertsona ditu, gehiengoak euskara jakitunak, gainera. Horiek guztiak astean zehar soilik aritzen dira osasun-zentrora etortzen den paziente oro artatzen. Izan ere, astean zehar baino ez da egoten zabalik anbulatorioa. Hain zuzen, astelehene-tik ostiralera eskaintzen du zerbitzua, goizeko 8:00etan hasi eta arratsaldeko 20:00ak arte. Beraz, asteburuan edo ordu horietatik kanpo paziente batek **artatua** izateko premia badauka, Bida-soako Ospitalera edo Irungo anbulatorio-ko larrialdietara joan behar du.

Artatua: *Atendido.*

Eraberri-tua: *Reformado.*

Proba osagarriak: *Pruebas complementarias.*

Sendaketa: *Cura, tratamiento médico.*

Zaharkituta: *Viejo, pasado de moda.*



Arnasbideak: Vías respiratorias.
Esamesak: Habladuría, rumores.
Hilkortasuna: Mortalidad.
Irudimentsua: Imaginativa.
Plazaratzeko: Publicar, hacer público.
Uxatu: Espantar, ahuyentar.

GRIPEAREN KONTRAKO KANPAINA IRUDIMENTSUA BIZKAIAN

OSAKIDETZAK KANPAINA BEREZIA ABIARAZI DU GRIPEAREN BERRI EMAN ETA HORREN AURKAKO TXERTOAREN ONURAK AZALTZEKO. HORRETARAKO, EZOHIKO FORMULAK ASMATU ETA ETXEBARRIN ZEIN BERMEON EGINDAKO AURKEZPEN EKITALDIETAN GAUZATU DITUZTE

Kanpaina berritzaile hau prestatu aurretik, lehenik eta behin, kale azterketa egin dute, iritziak eta zalantzak jaso eta gero horiek **plazaratzeko**. Hala, Osakidetza bi langilek Zornotzan eta Etxebarrin hainbat kale inkesta egin zituzten herritarrei gripearen eta horren kontrako txertoaren gainean galdetzeko. Inkestan epidemiologo baten iritzia ere jaso zuten. Lan hori jasotzearekin batera, talde bat ikerketa proiektu bat egiten dabil kanpaina honek jendearen artean piztuko duen erantzunaren tamaina ezagutu ahal izateko.

Etxebarriko aurkezpenean, gainera, luxuzko gonbidatuak izan ziren. Herriko erretiratu talde batek gripearekin lotutako antzezlanak prestatu zuen eta ekitaldian bertan antzeztu. Ikuspegi umoretsuarekin,

gripearen gaineko **esamesak** mahai gainean jarri zituzten. Antzezlan hori bideoan jasota dago eta beste aurkezpenetan ematen dute.

Osakidetza inbertsio handia egin du gripearen aurkako txertoetan eta herritar batzuek txertoarekiko duten beldurra **uxatu** eta jendea berau hartzea animatu nahi du. Horretarako, aipatutako bideo eta antzezlanaz gain, Bermeoko erizain Yolanda Landazabalek eta Etxebarriko Elisa Lezcanok gripea zertan datzan azaldu eta txertoari buruzko azalpen ugari eman zituzten aurkezpenetan. Kanpaina hau, batez ere, 64 urtetik gorakoei, gazteagoak izan arren gaixotasun kronikoak dituztenei, eta osasungintzan zein pertsona nagusiak zaintzen lan egiten dutenei zuzenduta dago.



TXERTOAREN ONURAK

Gripea ez da gaixotasun larria, baina oso kutsakorra da; eta gaixotasun zehatz batzuk dituztenei kalte arriskutsuak eragin diezazkiekete. Neguan bada, batez ere.

Sintomarik ohikoena goiko **arnasbideetan** arazoak izatea da. Hala, sukar altuaz gain, buruko, gihar edo eztarriko mina eduki ohi da. Hidratatzea eta atsedena eta antitermiko edo analgesikoak hartzea gomendatzen dute. Eta prebentziorako, eskuak ondo garbitzea, paperezko zapiak erabiltzea, atsedena hartzea eta txertoa ematea.

Osakidetza eta nazioarteko hainbat osasun erakunderen esanetan, 64 urtetik gorakoek, gazteagoak direnak baina birika, bihotz, gibel edo giltzurrunetako gaixotasun kronikoak edo diabetesa dituztenek zein osasungintzan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egiten dutenek txertoa hartu beharko lukete. Kontraindikazio bakarrak honako hauek lirateke: oilasko edo arrautza proteinari alergia larria izatea eta inoiz txertoak erreakzio txarra eragin izana. Horrez gain, sukarra edo katarro handia izanez gero, txertoa beranduago hartzea aholkatzen dute.

Txertoaren onurak garrantzitsuak dira: immunitatea txertoa jarri eta bi astera lortzen da; eta ikerketen arabera, txertoari esker ospitalizazio kopurua %55 jaisten da eta **hilkortasuna** %80 gutxitu.

IRAN

Istanbuleko aireportuan hegazkina hartzean, Europako beste edozeinetan geundela ematen zuen, nahiz eta aurpegietan nabaritzen zen han zeuden gehienak ez zirela europarrak. Hegaldian zehar ere nabarmentzeko ezer ez zegoen: jende gehienak naturaltasun osoz hartzen zuen, adibidez, ardoa edo garagardoa afariarekin, eta janzkerak ere, batez ere nesken artean, guztiz arruntak ziren guretzat (tiranteak, eskoteak...). Baina Teheraneko aireportura heldutakoan bazirudien beste hegaldi bat zela hura! Ezer ez zegoen agerian!

Horrek, dena den, ez gintuen inola ere harritu, joan aurretik informazio nahikoa bagenuelako. Bagenekien, adibidez, topikoak ez direla oso egokiak bidaiak egiteko, eta batez ere istilutsua den herri batera joanez gero (guk, euskaldunok, badakigu hori zer den, ondo jakin ere!). Eta bagenekien, era berean, kontraesan handiak aurkituko genituela eta, nabarmentzekoa, guztiaren gaintik, zelako jendea aurkituko genuen bertan! **Nekez** aurkituko dugu jende atsegina, askotan egoera eurentzat goxoa ez den arren politiko eta sozialki.

Dena den, joan aurretik topikoetatik haratago joaten saiatu arren, ezinezkoa da errealitateaz daukagun irudia neurri batean distorsionatuta ez egotea. Eta

neurri batean diot erlijioaren presentzia nabarmenagoa izango zela espero genuelako, oso nabarmena den arren egunerokoan. Argi dago bizitza sozial eta politikoa erabat menperatua duela erlijioak, baina, era berean, ez da arrunta kalean inor otoi egiten ikustea. Jendea oro har, salbuespenak salbuespen, ez da praktikante zorrotza (ez behintzat 5 otoi aldiak betetzerakoan). Hori, xiitak direlako dela diote, baina...

Beste topiko bat emakumeen egoera da. Egia esan, estatusa idealena izan ez arren, nekez pentsatuko genuen joan aurretik emakumeak aurkituko genituela kamioiak gidatzen, adibidez (unibertsitarioen erditik gora emakumeak dira). Eurek diote arabiarrentzat -eurak persiarrak dira beste ezer baino lehen- emakumeak makinak direla, baina eurentzat, aldiz, pertsonak direla. Eta nekez pentsatu genuen emakumeek ume txikiei bularra emango zietela denen aurrean, parke erdian **jesarrita**, adibidez.

Arazoa da ez dela erraza hori sinestea, burua eta emakume ezaugarriak estali beharra dituztenean. Hala ere, bitxia da zelan ahalegintzen diren traba horiek gainditzeko, *praktika okerren* kontrako zaindariak egon arren (ikusiezinak itxuraz), harrigarria da ahal duten guztia erakusten zelan ahalegintzen di-



AISIALDIA

Topikoetatik haratago ohikoa da iraniarrak lagun artean kafetegietan eta beselekoetan aisialdian ikustea.

ren! Bekoki inguruko ileak erakutsi ahal izateko, kolore ugariz **tindatuak** oso sarritan, irudimena izugarri lantzen dute eta, apurka-apurka gero eta milimetro gehiago erakusteko eskubidea lortzeko asmotan. Horretaz gain, oro har izugarri pintatzen dute aurpegia neska gazteek, eta nabarmentzekoa da zenbat neskak, baita mutil ugarik ere, daukaten **errinoplastia** egina (arabiarren herentzia eza-batzeagatik dela diote beraiek). Nesken herenak sudurra operatuta ei du!

“Argi dago bizitza sozial eta politikoa erabat menperatua duela erlijioak, baina, era berean, ez da arrunta kalean inor otoi egiten ikustea”.

Izan ere, Iraneko gizartea harritzeko modukoa da hasiera-hasieratik. 80 milioi inguru biztanle izanik, 40 milioi inguru 30 urtetik beherakoa da. Gehienek ez dute bat egiten garai bateko iraultzarekin, eta nekez aurki daiteke agintariekin ados dagoen inor, ezta nagusien artean ere. Ingelesezt gutzik egiten duten arren, oso-oso **abegitsuak** dira atzerriarrek (atzerriar asko ere ez dagoela esan



behar) eta ahal duten moduan komunkatzen ahalegintzen dira. Oro har, gaur eguneko agintarien aurka daude eta askok esaten dute, alde egiteko aukera izanez gero, atzerrira joango liratekeela. Epe laburrean ikusi behar zer gertatzen den, egoera lehertzeko modukoa izan daitekeelako.

Agintarien eta gizartearen arteko amildegia adierazteko, hona hemen adibide bi: Iranen, alkohola guztiz debekatuta dagoen arren, Alkoholiko Anomimoak daude eta 100.000 hiesdun inguru daude bertan, sexu jazarpena egonagatik. Kontrasteak bai!

Ez da ahaztu behar, boteretik bota aurretik, bertako xah-k (erregea alegia) oso gizarte modernoa bultzatu zuela bertan (modernoegia ordurako agian), laikoa neurri handi batean, gure hirie-

tako antzeko bizimoduarekin. Horregatik bizimodu bikoitza daramate sarritan bertan (kalean eta etxean). Kalean oso arau zorrotzak bete behar dituzte, etxean, ordea, normala da alkohola adibidez (ez beti, noski).

Ezkontza ospakizunetan ere fase bi daude (birritan gonbidatu gintuzten ospakizunetara, ezezagunak baginen ere). Lehenengoan gizonezkoek eta emakumezkoek zein bere aldetik egiten dute jaia, janaria eta musika tartean. Ondoren, jai pribatua egiten da, musika moderno, alkohol eta dena delakoarekin, baina beti estalian. Beraiek diote xah-ren garaian ez zutela askatasun politikorik, baina bai soziala, eta orain, ordea, ez dutela ez politikorik ez sozialik.

Oporretako egun gutxi bertan pasatzeak ez du ematen irudi guztiz zehatza, baina gomendatuko nuke animaziozko Persepolis filma ikustea, nahiko bat datorrelako geuk ikusitakoarekin.

Fisikoki ere kontrastez betetako herria da. Itsaso artean egonda, eta kostaldea eta iparraldea kenduta, oso paisaia lehorra dauka Iranek, basamortu handiekin. Baina aldi berean lurrazpiko ur ugari dauka, historian zehar kanalizazio harrigarritz baliatuta. Horrek itxura bi-

IREKIA

Iranen ikusten den bizimodu mota Mendebaldekoaren antzekoa da: janzkera mota, saltokiak...

txia ematen dio sarritan, horiari berdea atxikita. Horregatik hirietan berdegune ugari daude, zainduak, eta berdegune horiek izaten dira biztanleen topagune handienak.

Guretzat sinestezina izan daitekeen arren, edozein berdegune jendez beteta egoten da, kanpin denda, alfonbra... eta guzti hornitua, baita errepideen hegal eta erdialdeak ere. Orduak ematen dituzte bertan, hizketan, tea hartzen... gaueko **ordu txikiak** arte. Udan behintzat ez dute, ez, etxea oso gogoko, itzela baita kaleko giroa.

Horrek bizitasun ikaragarria ematen die hiriei: Teheran (itsusia, baina bizia benetan), Isfahan (ederra benetan), Jazd, Shiraz (ardo ekoizlea, ofizialki ez bada ere)... baina trafiko beldurgarriak ere laguntzen du horretan (oso ausarta izan behar bertatik gidatzeko). Baina guztiaren gainetik jendea, ze atsegina!

Ander Manterola.

Abegitsua: *Acogedor/a.*

Errinoplastia: *Rinoplastia.*

Jesarri: *Sentarse.*

Nekez: *Difícilmente*

Ordu txikiak: *Altas horas, madrugada.*

Tindatuak: *Teñidos.*

“Iranen, alkohola guztiz debekatuta dagoen arren, Alkoholiko Anomimoak daude eta 100.000 hiesdun inguru daude bertan, sexu jazarpena egonagatik”.

ARGITALPENAK GUREAN

GURE ARGITALPENAK AIPATZEKOTAN, HURRENGO ALDIZKARIA **AITZINDARIA** IZAN DA OSPITALEEN ZEIN ARLO SANITARIOAREN KAZETARITZAN. ALDIZKARIAREN GAINEAN ZERBAIT GEHIAGO JAKITEKO, HONA HEMEN BERE NONDIK NORAKOAK:



BASURTU OSPITALEKO ALDIZKARIA

Basurtu aldizkariaren lehenengo zenbakia 1995eko ekainaren batean eman zuten argitara. Lau hilean behin, 16 orrialdeko aldizkari honek 4.500 aleko tirada dauka egun. Basurtu Ospitaleko langile guztiek postaz jasotzen dute etxean. Halaber, Bilboko Udalak, auzokideen elkarteek, Bilbo Eskualdeko Zuzendaritzak, kanpoko hornitzaileek eta Osakidetza hainbat erakundetako zuzendaritzek ere jasotzen dute.

Horrez gain, ospitale barruko **erakustokietan** ere jartzen da pazienteen eta bisitarien bistan, eta batzuk zenbait pabilioitara eta kontsultategitara ere bidaltzen dira. Hortaz, argitalpenak zenbaitutako irakurle kopuru zehatzik ez daukan arren, jende askorengana ailegatzen da.

Aldizkariaren hasierako helburuen arabera, langileentzako **hedabidea** sortu nahi izan zuten bertan, ospitaleko berritasunak jakitera emateko asmoz: zerbitzu berriak, pertsona berriak, tresneriaren arloko berrikuntza teknologikoak, hainbat espezialitatetako artikululu medikoak eta lankideen arteko ezagutza zein zaletasunak, besteak beste.

Bestetik, zuzendaritzaren eta langileen arteko komunikazio bidea ezartzea ere bazen helburuetakoa, era egokian eta testuinguru atseginean langileei Plan Estrategikoaren edo Plan Zuzentzailearen berri emateko asmoz, esaterako.

Horiek horrela, aldizkariak sorrerako helburuak betetzen ditu egun, bizi-bizirik dago eta hobetzen jarraitzen du. Horren lekuko, hasieran langileek ez zuten gustuko aldiz-

'Basurtu' aldizkariaren lehenengo zenbakia 1995eko ekainaren batean eman zuten argitara. Lau hilean behin argitaratzen da eta 16 orrialdeko aldizkari honek 4.500 aleko tirada dauka egun.

karian bertan agertzea. Egun, ordea, ez dute inolako arazorik. Azken zenbakian, esate baterako, ospitaleko langileen argazki ugari agertzen dira.

Lan taldeari dagokionez, Dokumentazio Grafikoa, Yolanda Gonzalez Kalitateko idazkaria eta Ospitaleko Euskara Zerbitzua laguntzaile finkoak izan dira zenbaki guztietan, Carmen Serrano Erredakzioko idazkariaren ardurapean.

Gainontzeko kolaboratzaileak, ostera, unean unekoak dira, eta gai zehatz bati buruz idatzi edo artikululu bat sinatu dute. Aipatzekoa ere bada inoiz atal finkorik egon ez dela, Gabonetan izan ezik. Garai horretan, hain zuzen ere, izendapen berriak, sariak eta ospakizun bereziak egoten dira.

Ekarpenak ekarpen, zenbaki berri guztietan egon da **berritasunen** bat: zerbitzu berria, atal berria, liburuak, musika edo ibilbideak egiteko proposamenak... Modu berean, euskara bera ere hasiera-hasieratik izan da agerikoa, artikululu solteetan, gaztelaniako idazkien laburpenetan nahiz artikululu nabarrietan.

Dokumentazio lana:
Carmen Serrano



'BASURTU' ALDIZKARIAK

garapen handia izan du 1995etik gaur egunera arte baina langileentzako hedabidea izaten jarraitzen du.



Aintzindaria: Pionero, precursor.
Berritasuna: Novedad.
Erakustokia: Expositor, escaparate.
Hedabide: Medio de comunicación, difusión.



ZUIAKO KUADRILA, INGURUNE NATURAL PAREGABEA

ZUIAKO KOADRILA ARABAN DAGO ETA SEI UDALERRI DITU BERE BAITAN. INGURUNE NATURALA ETA GASTRONOMIA DIRA ESKUALDEAREN BEREIZGARRIAK, ETA GORBEIAKO ETA URKIOLAKO PARKE NATURALETAKO PARTE DA. MENDI IBILALDIAK, ESKALADA, MENDI BIZIKLETA, URTEGIAK... ESKUALDEA OINEZ EDO BIZIKLETAZ GOZATZEKO AUKERA PAREGABEA DAGO.

Zuiako Koadrila Aramaio, Arrazua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udalerriek osatzen dute. Denera 494 kilometro karratuko azalera du inguruneak, eta 9.500 biztanle baino gehiago. Naturekin bat egiteko leku ezin aproposagoa da Arabako ingurune hau. Bi paisaia mota bereiz daitezke: batetik, Gorbeia ingurua dago, Aramaio harana eta Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udalerriak. Bestetik, Arabako Lautada, Arrazua-Ubarrundia udalerrian hasten dena. Gainera, Araban euskararen eguneroko erabilera hobere den eskualdea da Zuiako Koadrila.

PARKE NATURALAK

Euskal Herriaz izan ohi dugun irudia eskaintzen du Zuiako Koadrilak. Orografia, klima eta landaretzak paisaia ikusgarriak osatzen dituzte, harizti, pagadi eta belardi iraunkorrek. Hala, eskualde hau bereziki erakargarria da; ikusi, aurkitu eta gozatzeko altxor asko gordetzen dituelarik.

Bi parke natural ditu Zuiako Koadrilak:

Gorbeia **mendigunea** da bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Parke Natural handiena dena, 20.016 hektareako azalerarekin. Azalaren %62 Arabako aldean dago, Zuiako Koadrilako eremuan; bestea, Urkiolako Parke Naturala da, eta honek ere, Gorbeia bezala, Bizkaiko eta Arabako lurra hartzen ditu. Parkearen %15 inguru Zuiako Koadrilako lurraldekoak dira, zehatzago esanda, Aramaio udalerrikoak.

HISTORIA

Zuiako Koadrilaren historiari buruzko lehen berriak zenbait **aztarna arkeologikori** esker ezagutu ditugu. Artzaintza, **sineskera** erlijioso edo hileta errituei lotutako eszenatoki eta kultura ezberdinak erakusten dituzte aztarna horiek; historiaurreko tumulu eta dolmenek eta erromaniko aurreko zerkamikazko objektuek, esaterako.

XX. mendearen erdialdean, eta orduko hazkunde ekonomikoa kontuan hartuta, eskualdeko jende asko hirira joan zen bizi izatera, baserri inguruneak hutsik geratuz. Gaur egun, berriz, bestelako prozesua bizi du eskualdeak. Turismoarekin lotutako zerbitzuen gara-

penagatik eta hiri lurzoruaren eta industrialaren eskaera berriengatik, besteak beste, goraldia bizi du eskualdeak. Oinarritzko sektorea geroz eta profesionalizatuagoa eta espezializatuagoa da Zuiako Koadrilan, nekazaritza eta elikaduraren sektoreari oso lotura baitago.

Turismo bulegoa Murgian dago, Domingo Sautu kalean, Zuiako udaletxearen beheko solairuetan. Zuiako Koadrilaren eskaintza hobeto ezagutzeko Gorbeia central park webgunea zabaldu dute. Baltzola, Oro eta Mairuelegorreta eskalada eskolak, Otxandio eta Oleta arteko Urkiolako ibilbidea, Landa Uribarri eta Ganboa arteko urtegiko ibilbidea, jatetxeak, spa zirkuituak... Informazio asko dago bertan eskura. Zuiako Koadrila oinez edo bizikletan ezagutzeko modu paregabea eskaintzen du atariak.

WEBGUNEAK

Abiarazi berri duten Gorbeia Central Park webguneak natura eskaintzaren berri zabala ematen du.

Eskualdeko gastronomiak berebiziko garrantzia

Gastronomia **oparoa** eskaintzen du eskualdeak. Ohiko jakiak prestatzeko erabiltzen diren produktu gehienak baserriaren eguneroko jardunetik ateratzen dituzte. **Eskulangileen** lana, belaunaldiz belaunaldi gaur arte iritsi dena, tokiko usadioen eskaintzaren barruan benetako erreklamo dela nabarmendu behar da. Turismo eskaintza gora doan eskualdean gastronomiak ere garrantzi handia du. Hala, Idiazabal gazta, Bizkaiko sagardoa eta txakolina, Gernikako indabak, ortuko kalitate goreneko produktuak.

Aztarna arkeologiko: *Yacimiento arqueológico.*

Eskulangileak: *Artesanos.*

Goraldia: *Crecimiento, apogeo.*

Mendigunea: *Macizo.*


Oparoa: *Rico, abundante.*

Sineskera: *Creencia.*

OSATUBERRI Interneten:

Osatuberri **aldizkarira** heltzeko **4 pauso**:

- 1 Google bilatzailaren bidez, **klikatu** **osakidetza.euskadi.net** eta aukeratu Euskara nabigatzeko.
- 2 Sakatu **Profesionala naiz** dioen lauki urdinean.
- 3 **Giza baliabideak** izeneko zutabean, aukeratu **Euskara**.
- 4 Azkenik, hautatu **argitalpenak**, eta hara hor **Osatuberri aldizkaria** PDF formatuan.



Harpidetu zaitez!

aldizkaria etxean jaso nahi?

Osakidetzaako langilea bazara
eta aldizkaria etxean jaso nahi
baduzu, bidali itzazu zeure
datuak helbide honetara:
osatuberri@osakidetza.net

